

Herririk Herri |4|

Trena lurperatuta egongo da Durangon, 2012ko lehenengo sei hilekorako



Berbaz |8|

J. M. Etxebarria: "Zaharrak ez dira euren euskaraz lotsatu behar. Altxor handia dute"

Kultura |11|

Bihar lurretako kultur etxean emanaldia daukan Ulannah folk taldea ezagutzen

Udalsarea 21 saria jaso du Mallabiko Udalak

> Mallabiko ekimenak Goitondo industrialdean ekosistema naturalak antolatzea du helburu

> Aitor Loiola alkateak, saria jaso eta gero, proiektua gauzatzeko asmoa adierazi du

4




Durangoko udal beharginen soldata jaitsiera errekurritu egingo du ELAk

Durango • Azken udalbatzarrean udal beharginen soldata %5 jaitea onartu zuten, EAJ eta PSE-EEren aldeko botoekin, PPren abstentzioa-gaz, eta Aralar eta Talde Mistoaren kontrako botoekin. Sindikatuek gogor kritikatu dute udalak hartutako neurria. ELAk adierazi duenez, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko du, erabakia baliogabetu eta aurreko egoerara itzultzeko. "Udalak ez du defizitik eta, gainera, Udaliten adostutakoaren aurka doa", azaldu dute.

LAB ere erabakiaren aurka agertu da. Negoziazio kolektiboaren aurkako ekimen moduan baloratu dute erabakia. Neurririk hartzekotan kapital errenten gainean hartu behar liratekeela diote.

2



Kepa Aginako

• Izurtza

Aho batez onartu dituzte 2011ko udal aurrekontuak

7

• Elorrio

'Elorrio txapeldunen herria' liburua aurkeztu dute

6

• Otxandio

Baserri produktuen azoka egingo dute domekan

4

• Abadiño

Abadiño Sariak banatuko dituzte abenduaren 17an

3



HERRIRIK HERRI >

■ **DURANGO**

Udaleko langileen soldatak % 5 jaitsiko dituzte

ELA sindikatuak erabakia administrazioarekiko auzietarako epaitegira eroango duela aiderazi du

Sindikatuak ez dute ontzat eman Durangoko Udalak azkeneko udalbatzarrean udal beharginen soldatak % 5 jaitsiko erabakia. Guztira, 300.000 euro aurreztuko ditu udalak. Plenoan bertan, bozketaren aurretik, beharginek berba hartu gura izan zuten, baina ez zieten utzi. "Bozketarikez" oihu artean kaleratu zituzten aretotik.

Bozketan langileei ez zieten berba egiten utzi, eta protesta oihu artean kaleratu zituzten

Plenoak hartutako neurriak Durangoko Udaleko 250 behargin baino gehiagori eragingo die; bai laboralei bai funtzionarioei. Udaleko lau organismo autonomoetan –Astarloa Kulturgintza osatzen duten Arte eta Historia Museoan eta Liburutegian, Bartolome Ertzilla musika eskolan, Euskaltegian eta Durango Kirolaketa– eta udaletxean dihartute lanean.

ELAk gehiengo sindikala du udalean, eta gogor kritikatu du jaitziera. José Ramón Lasarguren de-

gatuak azaldu duenez, "neurriak ez dauka zentzurik, joan zen urtean publikatu zen moduan, udalak ez duelako defizitik". Jaitziera estatuko aurrekontuen bitartez hartu dutela gaineratu du, baina hori jaisteko bakarrik kontuan hartzen dutela azaldu du: "2007tik 2009ra extreme %1 igo beharko ziguketen, baina ez zuten igoerarik aplikatu".

Lasarguren Udalitik akordioa ere gogora ekarri du: "2008tik 2010erako Udaliten adostutakoa bertan behera utzi dute". ELA administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko duela adierazi du "erabakia baliogabetzeko".

Soldatak jaitea negoziazio kolektiboaren aurkakoa denez, LABek ezin duela onartu azaldu du: "Gobernuen kudeaketa txararen ondorioak administrazioetako langileen kolektiboari zerga gehitu bat jarri ezal gura dituzte". LABek dioenez, zerga gehitua ezarri behar kolitzateke, baina ez administrazioetako beharginei, baizik eta kapital erreteiei; espekulatuzaileei, enpresaburuei, iruzurgileei. "Gure apustua kalitateko zerbitzu publikoaren aldekoa da. Kalitateko enplegua bultzatu eta prekarietatea borrokatu". ■ J.G.



Sindikatuak gogor kritikatu dute udalak hartutako neurria. Kepa Aginako

EAJ: "Erabaki hau hartzera derrigortuta gaude"

EAJk eta PSE-EEK udaleko langileen soldatak jaistearren alde bozkatu zuten azken udalbatzarrean, PP abstenitu egin zen eta Talde Mistoak eta Aralarrek kontrako botoa eman zuten.

Aralarreko bozeramaile Dani Maeztuk esan du Espainiako estatua defizitari buelta emateko gastuetan oinarritu dela, eta diru sarreteretan hartu beharko liratekeela neurriak.

Ritxar Alberdi Talde Mistoko bozeramailearen berban, "krisia orain dela bi urte hasi zenean Madrilgo gobernuak bankuak eta enpresa handiak babestu zituen, eta ordutik hartutako neurriak herriarren kalterako izan dira".

Alderdi sozialistak argudiatu du neurria arrazoizkoa dela, eta udalak daukan zorra gutxitzeko bide bat ere izango dela. 300.000 euro aurreztuko ditu udalak soldaten murrizketagaz.

PPko bozeramaile Juanjo Gastañazorrek azaldu du Espainiako parlamentuan dekretuaren kontra agertu arren, lege dekretuak derrigorrez bete behar direnez abstentzioaren bidea hartu dutela.

EAJko bozeramaileak esan du gaia ez dela atsegina eta, gainera, udalean badagoela dirua beharginen soldatak mantentzeko, baina lege dekretua denez, udala derrigortuta dagoela soldaten jaitziera onartzera. ■ A.U.

Kantzerraren kontrako elkarteari dohaintzan dirua emateko aukera domekan

Krisia dela-eta, ez dute komertzioetan dirurik eskatuko eta mahai bi ipiniko dituzte Andra Marian

Urtesasoi honetan, AECCren (Kantzerraren Kontrako Espainiako Elkarteak) Durangoko batzordeak komertzioei dohaintzan dirua eskatu ohi die, elkartea aurrera errotan dabilen proiektuak babesteko. Aurten, baina, krisi egoera kontuan hartu dute eta, urtero jaso izan duten laguntzagaz pozik daudela jakinarazi duten arren, dendarik denda ibili beharrean, domekan postu finko bi ipintzea erabaki dute. Horrela, gura duenak bertan egin dezake dohaintza,

Esaterako, AECCren fundazioak ikerketa onkologikoak egin ditzan erabiliko dute dirua

eskualdeko norbanakoek zein elkarte eta komertzioek.

Beraz, abenduaren 12an, goiz osoan zehar Andra Maria eta Santa Anako aterpean postu bi ipiniko dituzte. Dohaintzan laguntza eman gura duenak bertara joan da izango du horretarako aukera.

Kanpainak eta ikerketak

Etzi batzen duten dirua kantzerraren prebentzioarako heziketa kanpainetara eta gaixoei zein senitar-tekoiei laguntza psikosoziala eskaintzera bideratuko dute. Horrez batera, AECC elkarteak fundazio zientifikoak garatzen dabilen ikerketa onkologikoak indartzeko ere baliatuko dute jasotako dirua. ■ J.D.

Alkateak Urki-Hegoalde zatiaren lanak atzeratu dituela salatu du PSE-EEK

Sozialistekin sinaturiko "aurrekontu akordioa" ez betetzea egotzi diote alkateari sozialistek

Uriko kanpoko errepide eraztuna itxiko lukeen Urki-Hegoaldeko lanak "hirugarren lauhilekoan hastea" adostu zuten, sozialistek diotenez, eta dagoeneko abenduan egonda, exekuzioa ez has-tea salatu dute. Obra honetarako milioi bat euroko aurrekontua zegoen zehaztuta (480.000 euro kredituen atxikipenagatik eta 520.000 zorpetzeagatik), eta sozialisten ustez, "EAJ, bereziki Aitziber Irigoras alkatea, exekuzioa atzeratzen dabilta 2011ko hau-

PSE-EE: "Lanak atzeratzen dabilta hauteskundeetan etekina ateratzeko"

teskundeetan etekina ateratzeko helburuagaz".

Atzerapen horregatik, Larrasoloeta eta Juan Itziarko auzunee-tako biztanleek egoera hori sufri-

Larrasoloeta eta Juan Itziarkoko biztanleek egoera "pairatzen" jarraitzen dute

tzen jarraitzen dutela ohartarazi du alderdi sozialistak, "egunero 13.000 kotxe pasatzen baitira inguru horretatik". Auzokideen protesta ulertzen dutela adierazi eta berriro azpimarratu dute barne trafikoa arintzeko proiektu horren garrantzia. ■ J.D.

Haurrak zelan hezi berbagai abenduaren 18ko hitzaldian

Euskadiko Esnearen Liga elkar-teak haurren heziketaren gaine-ko hitzaldia antolatu du abenduaren 18an, 11:00etan, Durangoko Pinondon. *Zigor, mehatxu eta xantaiak ekiditen dituen erla-zioak eraikitzen* izeneko berbal-dia Nerea Mendizabal psikope-dagogoak eskainiko du euskaraz, eta sarrera doakoa da. Mendizabalek, besteak beste, haurren beharrezan aurrean jokabide egokienak zeintzuk diren azalduko du.

Bestalde, Euskadiko Esnearen Ligak astelehenean, 18:30ean, hilean behingo bilera egingo Andragunean. ■ J.D.

Nerea Mendizabal psikopedagogoak emango du hitzaldia Pinondon

Trena lurperatuta egongo ei da 2012ko lehen seihilekoan

Iñaki Arriola sailburuak legebiltzarrean azaldu duenez, 2012ko lehen erdian amaituko dute trena lurperatzen

Aralarren legebiltzarkide eta Durangoko zinegotzi Dani Maeztuk legebiltzarrean gogoratu zuenez, Durangon trenbidea lurperatzeko egitasmoa "hirukoiztu egin da bi zentzutan: aurrekontuari dagokionez eta epeari dagokionez". Horregatik, garraio sailburuari eskatu zion Durangoko herritarrek "behingoz errespetatu" ditzala eta "bete dezala sailburuak publiko egin duen azkeneko bukaera data: 2012ko lehenengo seihilekoa".

Arriolak onartu zuen egia dela egitasmoaren aurrekontua hiru-koiztu egin dela, eta epea atzera-

tu egin dela, baina "aurreko gobernuaren gestio onaren oinordetza" dela argitu zuen, EAJri aipamen eginez. Trena lurperatzeko hasierako aurrekontua 67 milioikoa zen, eta gaur egun 213 milioiko gas-tua du. Datari buruz, 2012ko lehenengo seihilekoan lanak amaituta egongo direla berretsi zuen.

Aralarren ordezkariari ez zitzaion "nahikoa" iruditu sailburuak emandako argudioa, eta gogoratu zion bera sailburu izanda ere "behin eta berriro betetzen ez diren epeak eta hitzak ematen dabiltzala". Legebiltzarkideak azken hori "data definitiboa" izan dadila eskatu zion, gobernuaren lana "ematen dituen hitzak eta aurreikuspenak betetzea" delako, eta Durangoko herritarrek ez dutelako merezi "kudeatzaile txarren kudeaketa txarra paitzea". ■ J.D.

Hasieran 67 milioi eurokoa zen aurrekontua, eta orain 213 milioikoa da

ABADIÑO

Aldundiagaz hitzarmena noiz sinatu zain, zaharren egoitza eraikitzeko

Egoitza hartuko duen lursaila urbanizatuko du udalak; eraikuntza Aldundiak egitea adostu dute

Joan den udan udal gobernuak ohar batean jakinarazi zuenez, "negoiazio luzeen ondoren" adostu zuten Bizkaiko Aldundiagaz udaletxearen atzealdeko 9.000 m²-ko lursaila urbanizatzea udalak hartzea bere gain, ondoren "Aldundiak beharrezko aurrekontua daukanean obrak hasi ditzan".

Asteon gaiari buruz galdetuta Jose Luis Navarro alkateak jakinazi digunez, zaharren egoitzaren eraikuntzari buruzko hitzarmena prest daukate dagoeneko Aldun-

diak eta Abadiñoko Udalak. Udaletxe atzealdeko lursailaren erosketari buruzkoa da Navaroren berbetan osatzeke daukaten tramite bakarra: "Bizkaiko Kutxagaz tramite hori lotuta, sailburuak eta nik neuk adostutako hitzarmena sinatzea bakarrik falta da". ■ I.E.

Zaharren egoitzaren eraikuntzari buruzko hitzarmena prest daukate



Gastuak hirubidertu egin direla onartu du Arriola sailburuak.

Campurriano, Lizundia, Gorrotxategi, Elorriaga eta sokatira taldea saridun

Abenduaren 17an, Errota kultur etxean egingo dute lehenengoz 'Abadiño Sariak' ekitaldia

Abenduaren 17an, Errota kultur etxean egingo duten ekitaldian banatuko dizkiete "Abadiñoren izena zabaltzeko lanean nabarmendu diren bost herritarrei" lehenengoz antolatu duten sari-
ketako oroigarriak. Jose Luis Lizundia euskaltzainak, Andeka Gorrotxategi tenoreak, Javier Elorriaga txirrindulariak, Angel Alvarez "El Campurriano" eskulturgileak eta Abadiño sokatira taldeak jasoko dituzte ekitaldi horretan 2010eko Abadiño Sariak. Guztiek

ere, "herriagazko inplikazio handia erakutsi dute, eta gazteentzako eredugarri diren balioak zabaldu dituzte", alkateak azpimarratu duenez, eta sariaketa "herritar guztien esker ona adierazten duen sari sinbolikoa da".

Javier Fernándezek gidatuko du abenduaren 17ko sari-banaketa ekitaldia, 20:00etan hasita; Virginia Hernandez, Maialen Larrinaga, Yudit Yera eta Alejandra Navarro musikari gazteek emanaldia eskainiko dute. ■ I.E.

IURRETA

Juan Orobiogoitia, ikastetxe iraunkorra

Astelehenean Juan Orobiogoitia ikastetxeko arduradunak Gasteizera joango dira, Eusko Jaurlaritzan Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria jasotzera. Azken urteotan ingurugiroaren gainean egindako beharra dela eta jasoko du saria ikastetxeak. Iurretakoaz gainera, aurtun EAEko 21 ikastetxek jasoko dute saria.

Eusko Jaurlaritzak aurtun 21 ikastetxeri emango die Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria

Ikastetxeak baldintza batzuk betetzen zituen jakiteko galde-
tegi bat bete behar izan dute Juan Orobiogoitiako arduradunek. Azaldu dutenez, ikastetxean "betidanik" landu dute ingurugiroaren gaia: "Hondakinak, uraren erabilera, energia, kontsumo arduratsua... gai horiei buruzko jarrerak landu ditugu ikasle, irakasle eta familiek". ■ A.U.

Bihar, berbaldia herriko presoen senide eta preso ohiekin

Iurretako presoen senideek eta preso ohiek mahai-ingurua eskainiko dute bihar, zapatuan, Goiuria kultur gunean, 19:00etan.

Berbaldian senideek herriko presoen bizi duten egoeraren berri emango dute, eta egoera hori barrutik familiek zelan bizi duten kontatuko dute. Egunero kotasunean dituzten bizipenak eta gorabeherak izango dituzte berbagai.

Iurretako preso ohiekin euren esperientziaren berri emango dute, eta gaur egungo egoerari buruz duten iritzia ere azalduko dute. Eztabaidarako tarteak ere egongo da bihar iluntzeko berbaldian. ■ A.U.



A. Urreta podología

- Oinetako patologiak
- Neurri-egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

Herriko gudarien kalea, 10 - behe
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Podología

GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia

Euskal Okela

Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

MALLABIA

Ekoberrikuntzan Udalsarea 21 Saria jaso du Mallabiak

Mallabiko ekimenak Goitondo industrialdean ekosistema naturalak antolatzea du helburu

Mallabiak 2010eko Udalsarea 21 saria jaso du Ekoberrikuntza kategorian. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu Pilar Unzalu buru izan duen ekitaldian banatu dituzte sariak, Euskal Udalerrien Tokiko Agenda 21 en 8. Jardunaldien harira. Udalsarea 21 sariak Tokiko Agenda 21 en eremuan egindako lana eta EAEko iraunkortasun jardunbide egokienak, udalerri mailakoak, aintzatesten dituzte. EAEko 46 udalerri aurkeztu dute hautagaitza, eta 15 aukeratu ditu epaimahaiak finalerako. Bost izan dira irabazleak, eta, beraz, "iraunkortasunaren arloan udal bikainak": Mallabiaz gainera, Legazpi, Klima Aldaketa kategorian; Amurrio, Biodibertsitatean; Azpeitia, Iraunkortasunerako Hezkuntzan;

Zornotza, Ekintza Eredugarrian. Unzaluk nabarmendu duenez, "Udalsarea 21eko 165 udalerriek, Tokiko Ekintza Planekin, lanean dihardute herritarren bizikaltatea hobetzeko, helburu argi batez: motorrik bako mugikortasuna, tokiko ekonomia bizia eta aisialdirako espazio berdeak sustatzen dituzten udalerri eta hiri iraunkorrak eraikitzea".

Mallabiko ekimenak ekosistema naturalen antolaketa Goitondo industrialdean aplikatzea du helburu. Ekosistema izeneko proiektutik Ekintza Plana atera da. Industrialdeko enpresen lankidetzak sustatu gura dute baliabideen kostuak murriztuz, hondakinak berrerabiltzea eta materialen garraioa, mugikortasuna eta enpresen jardunbide egokien trukea eta horiek ikasketarako ekimenak proposatzeko.



Mallabiko Udalaren izenean Aitor Loiola alkatea jaso du saria.

Arrasateko Unibertsitateak eta Debegesak Mallabiko Udalarri proiektu hori martxan jartzen lagundu diote. Aitor Loiola alkatea azaldu duenez, "bide onetik goazen adierazgarri da, eta bide bere-

Aitor Loiola: "Proiektua saritu dute, eta apurka-apurka martxan jarri gura dugu"

tik jarraitzera bultzatzen gaitu. Proiektua sarituta, orain apurka-apurka martxan jartzea aurreikusi dute. "Ea Goitondoko enpresak, udalak eta erakundeak bat egiten dugun aurrera ateratzeko". ■ J.G.

Pantxoa eta Pello abesbatzekin kontzertuan

Jasokunde eta Mendibil abesbatzek Pantxoa eta Pellogaz batera abestuko dute abenduaren 17rako antolatutako kontzertuan. Ekitaldia Mallabiko frontoian eskainiko dute, 22:00etan. Iparraldeko musikari ezagun biek Mallabiko bi abesbatzekin hamar abesti eskainiko dituzte. Bakoitzak bere aldetik, hiruna abesti tartekatuko dituzte. Guztira, 40 abeslari igoko dira frontoiko taula gainera.

Iparraldeko musikariek 10 abesti eskainiko dituzte abesbatzekin; bakoitzak bere aldetik beste hiruna kanta

Orain arte ipuin bat asmatu eta antzerkiari musika jarri izan diote abesbatzek. Iratxe Uribeharrea abesbatzako arduradunak azaldu digunez, "aurten bestelako zer edo zer egin gura genuen, eta Pantxoa eta Pellogaz berba egin genuen". Sarre 5 euroren truke jarriko dute salgai, eta hortik euro bat asteburu bat nekazaritza batean pasatzeko errifarako izango da. ■ J.G.

OTXANDIO

Baserri produktuen azoka antolatu dute domekan

Kementsu kultur elkarteak Baserri Produktuen Azoka antolatu du domekan, 09:00etatik 15:00ak arte, Plaza Nagusian. Guztira, 40 ekoizle batuko dira eta goiz osoan zehar trikitilariak eta kale-animaizak giroa dute azoka.

Horrez gainera, esaterako, Iurretako Jose Rementeria idiridi-bikoteak erakustaldia eskainiko du. Artisau batek beira zelan lantzen den ikusteko aukera ere eskainiko dute azokan.

II. Buzkantz Lehiaketa ere antolatu dute. Buzkantzak domekan, 11:00ak baino lehenago, entregatu beharko dira. Irabazleak 150 euro eta bigarrenak 75 irabaziko dituzte; denek ardo botila sorta bana jasoko dute. Ondoren, buzkantza pintxoak salduko dituzte. ■ J.D.

II. Buzkantz Lehiaketako irabazleak 150 euro eta bigarrenak 75 jasoko dituzte

DURANGALDEA

Etxebizitza eta ekonomia arloa aztergai, 'Durangaldea maite dugulako' kanpaina

Etxebizitza eta politika ekonomikoen gaineko hausnarketa eta alternatibak plazaratuko dituzte

Durangaldeko datoen urteetako garapen ildoak markatzen dituen Lurralde Zati Planaren gaineko hausnarketa eta eredu alternatiboak eskaintzen dituzte.

Etxebizitzen arloan, alokairu publikoa garatzea eta pribatuari mugak ezartzea planteatzen dute

ko irailean eskualdeko Ezker Abertzaleak abiatu zuen 'Durangaldea maite dugulako' kanpainak. Datoren asteetan, arloko azterketak horretan, etxebizitza politiken eta jardueren ekonomikoetako industriaguneen kudeaketa ereduaren zentratuko dira.

Etxebizitzen arloan, bizilekua merkatu librean lortzeko dauden ezintasunak, espekulazioaren oinarriak eta hipoteken ondorioak

azaldu eta arazo horiei aurre egiteko alternatibak plazaratuko dituzte. Bide horretatik, alokairu publikoa garatzea eta pribatuari mugak ezartzea planteatzen dute. Hutsik dauden eraikinen erabilpena sustatu behar dela eta etxebizitzaren kudeaketa publikoa eta soziala bermatu behar dela uste dute, hutsik dauden bizilekuei zigor fiskalak ezarritik.

Lehen sektorea lehenetsiz

Jarduera ekonomikoetara bideratutako lursailetan produkzio eredu jasagarri baten beharra ikusten dute, lehenengo sektorea lehenetsiz. Pabilioi hutsak erabiltzeko politikak ere proposatzen dituzte.

Era berean, orain arte kanpainaren ardatz izan diren kaleko ekimenak egiten jarraitzeko asmoa erakutsi dute. ■ J.D.

ZALDIBAR

Ardo dastaketa ikastaroa, euskara praktikatzeko, Berbalagunen barruan

Berbalagun ekimenaren baitan antolatu dute ikastaroa, datorren astelehenerako, 19:00etan

Ardo dastaketa ikastaroa burutuko dute abenduaren 13an Zaldibarren, Berbalagun ekimenagaz lotuta. Atera arbela kalera lemapean garatuko dute ikastaroa, euskara ikasleek jardueraren baten inguruan klasean jasotako praktikatu ahal izan dezaten. AEK, Eixu euskara elkarte, Ber-


Ana Larrañagak gidatuko du ikastaroa Goierriko txokoa, 19:00etatik aurrera

baro eta EHNEren eskutik, besteak beste, sortu da egitasmoa; Durangaldeko hainbat udalen laguntza ere badu.

Goierriko txokoa ipini dute hitzordua, arratsaldeko 19:00etan. Ana Larrañagak gidatuko du ikastaroa, eta bertan parte hartzeko izen-ematea doakoa da.

Mendira irteera domekan

Zaldua mendi taldeak Zandubur mendirako irteera prestatu du etzitarako. Goizeko 08:00etan, udal txean batu eta Zeanurira joango dira kotxeetan; igoera erraza dela azaldu dute. Bestalde, hilaren 31n, Akaitz mendian agurtuko dute urtea, eta ohiko argazkia ere aterako dute bertan. ■ M.O.



**MOMOTXO
TABERNA**

Plateruen plaza, 12
Tel.: 94 681 10 06 DURANGO



Hartz Klinika

Ekoden

ZX-27 kristalezko inplanteen sistema iraultzailea



sistema honi esker, ez da ebakuntzarik egin behar, eta protesi finkoa eraman daiteke, hezurrik eduki ez arren

www.hypodent.sk/en/zx_27.html

Arkotxa, 4 - Etxabea • 48200 DURANGO

Tel.: 94 621 78 22

www.clinicaekoden.com

**EZ GARA
FRANKIZIA**

GURE ARDURAPEAN ZAUDE

ELORRIO

'Elorrio, txapeldunen herria' liburua argitaratu dute

Azkarate, Lejarazu eta Alvarezen kirol ibilbidean oinarritu dute liburua

Mende erdi bete da aurten Hilario Azkarate, Felipe Lejarazu eta Jose Antonio Alvarezek Elorrio esku pilotaren historian sartu zutenetik. Hurre-

Besteak beste, hiru pilotari ohiei egindako elkarrizketak jaso dituzte liburuan

nez hurren, lehenengo mailako, bigarreneko eta afizionatueta buruz buruko txapelak irabazi zituzten. Lorpen horren urteurrena izan dela-eta, *Elorrio, txapel-*

dunen herria izeneko liburua argitaratu dute orain Ricardo Ajuriak, Agustín Urizarrek eta Jose Luis Arrubarrenak.

Euskaraz eta gazteleraz idatzitako liburuko hitzaurrean argi utzi dituzte euren helburuak. Sasoi hartako artxiboak eta egunkariak arakatzuz batutako dokumentazioari argazkiak eta elkarrizketak gehituta, "garai bat iruditzen ahalagindu gara" diote egileek.

Lehenengo kapitulueta pilotak Elorrioren izan duen ibilbidea jaso dute, eskualdeko txapelketa-

Elorrioko pilota eskolak izan duen garrantziari buruz ere idatzi dute atal batean

tik hasi, afizionatueta pasatu eta profesionaletaraino. Beste atal batean, hiru txapeldunei egindako elkarrizketen bitartez, bizipenak eta ibilbide profesionala jaso dituzte. Kuriositate moduan, aipatzekoa da, herri berekoak ez ezik kale berekoak ere bazirela Azkarate, Lejarazu eta Alvarez.

Elorriok pilota eskola sendoa eta oparoa izan du. Horregatik, elorriar gazteak trebatzeko tresna garrantzitsua izan den pilota eskolari beste atal bat eskaini diote, hainbat daturekin. ■ J.D.

Presoen egoera arte eszenikoen bidez gogoratuko duen ikuskizuna

Elorrioko hainbat artisten ekimenez, abenduaren 18an, presoen egoera ikuspuntu artistikotik erakutsi eta landuko duen *Zuentzat dira* ikuskizuna antolatu dute Elorrioko Arriolan. 19:30ean hasiko den ekitaldirako sarrerak Portalekuan, Parran eta Orbelan daukete salgai, 5 euroan.

Ordubete inguru iraungo duen ikuskizuna atal bitan osatuta dago. Lehenengoa ikus-

Artista bik mural bat margotu bitartean, musika, bertsoak eta dantzak eskainiko dituzte

entzunekoek osatuko dute. Bigarrenean, eszenatokiaren atzealdean artista bik mural bat pintatzen duten bitartean, aurrean musika, bertsoak, poesia errezitaldiak eta dantza taldeen erakustaldiak emango dira. Musikari dagokionez, Lor, Antton eta Mokaua taldeetako kideak batuko dira. ■ J.D.



Elorrioko udaletxean aurkeztu zuten hiru pilotarien inguruko liburua. Juanra de la Cruz

Elkartasun Jaialdia frontoian egingo du Kainaberak

Abenduaren 19an, eguerdiko 12:00etan hasiko da aurten Kainabera GKEak antolatutako Elkartasun Jaialdia. Duela hamabi urte- tik urtero egin da jaialdia Arriolan baina, azken urteetan aretoa "txiki" geratu dela-eta, Kainaberak Hilario Azkarate frontoira eramango du aurten jaialdia.

Urtero legez, hainbat partaide izango ditu jaialdiak; Elorrioko ikastetxeak, musika eskola, Betsaide dantza taldea, Durangaldeko txistulariak, Eduber dantza akademia, Berriotxo abesbatza, La Esperanza nagusien elkar- tea eta norbanako musikariek parte hartuko dute. Batutako dirua Boliviara giza-laguntza emateko izango da. ■ A.U.

BERRIZ

Emakumeei begirako kontakizun lehiaketa

Gure Izarrak emakume taldeak Emakumeen Literatur Kontakizunen Lehiaketa antolatu du, "sentimenduen komunikazioa sustatu guran". Bi maila zehaztu dituzte: 18 urte artekoak eta hortik gorakoak. Parte-hartzaile bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, euskaraz zein gazteleraz, gehienez jota hiru orrialdeko luzapenagaz. Hilaren 14a baino lehenago bidali behar dira lanak, 64 posta kutxatilara, lehiaketari erreferentzia eginez. Abenduaren 17an emango dute epaia; argazki-kamera, mp4 irakurgailua eta dirua banatuko dituzte onenen artean. ■ M.O.

XVIII. mendeko hiztegia, Euskaltzaindiaren esku

Juan Jose Arginzoniz berriztarrak baserrian izan duen hiztegia eman dio Jose Luis Lizundiari



Berrizko udaletxean egin zuten dohaintza ekitaldia.

Berrizko Olabe auzoan, Bengetxe baserrian izan dute gordeta XVIII. mendeko hiztegia. DRAEren (Diccionario de la Real Academia Española) bigarren edizioa da honakoa, eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiko kideak esan du "sorpresa handia eta garrantzitsua" izan dela halako ale bat Berrizen aurkitzea. Pozik azaldu da Arginzonizek dohaintza egin dielako; liburua Azkue artxiboan izango dute; "lekurik onenean", Lizundiaren ustez. Izan ere, "zokoratuta barik, irakurle eta ikerlarien eskura egongo da", euskaltzainak aurreratu duenez.

Joseba Fernández, Eibarren irakasle eta Berrizko bizilagun dena izan dute bitartekari. ■ M.O.

Aurreratu dutenez, Azkue artxiboan izango dute hiztegia eskuragai

Betikoak
flexografia
ofizinarako zigiluak
fotolitoak
Bixente kapanaga, 9 - 48215 IURRETA
Tel.: 94 620 22 41

"BODEGUILLA"
TRAÑA-MATIENA
Tfnoa. 94 681 43 85

Arriike
Liburudenda
Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO
Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

katerin ardoak
iñaki uribe
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77



Durungaldean labor

Gutun lehiaketa eta Astunera bidaia Berrizen

Berrizko Udalak Olentzero eta Mari Domingi euskaraz idatzitako gutunen lehiaketa antolatu du. Lanak aurkezteko epea abenduaren 16an amaituko da.

Bestalde, abenduaren 27tik 30era Astunera eskiatzen joateko bidaia antolatu dute. Izen-ematea abenduaren 15ean amaituko da Kiroldegian (220 euro).

Sahararren karabanarako produktu bilketa hasi dute

Berrizen astelehenean zabalduko dute sahararren aldeko euskal karabanarako janaria batzeko epea. Udaletxera (10:00etatik 14:00etara) eta herriko dendetara zein ikastetxetara eroan daitezke elikagai iraunkorrak edo bestelako produktuak: arroza, leka, azukrea, atuna, konpresak... Epea urtarilaren 22ra artekoa da.

Durango gastatzeko 100 euroko txartelak

Gerediaga, + Dendak eta Durango Bai elkarteek Durangoko Azokara begira abiatutako kanpainan saritutakoak nortzuk diren jakinarazi dute: + Dendak elkarte-ko dendetan gastatzeko 100 euroko opari-txartela Mentxu Gandariasek irabazi du, eta Durango Bai elkarte-ko dendetan gastatzeko Juan Luis Zarrabeitiak.

Maristetako ikasleak irabazle bideo lehiaketan

Maristetako ikasleek irabazi dute Gerediagak antolatutako bideo lehiaketa: Deiene Usategi, Iratxe Landa, Claudio Legido eta Leire Blanco dira bideoa osatu duten ikasleak. Hiru minutuko ikus-entzunezkoan, antzinako argazkiekin eta gaur egungo irudi-ekin osatuta, garai bietako bizimoduaren konparazioa egin dute ikasleek.

IZURTZA

Aho batez onartu dute 2011rako udal aurrekontua

Jaio-berrientzako eta alokairurako diru-laguntzak banatuko ditu 2011n Izurtzako Udalak

Inbertsioen atalean, besteak beste, herrian alokairua sustatzeko diru-laguntzarako 10.000 euro eta jaio-berrien familientzako 2.400 euroko partida jasotzen ditu Ezker Abertzaleko gobernua eta oposizio-ko jeltzaleek onartutako udal aurrekontuak. Amaitzean dagoen urte honetarako ia aurreikusitako zutena baino 40.000 euro gehiago (250.000 eurokoa da 2011rako aurrekontuan inbertsioetara bideraturiko kopurua) jasotzen ditu joan zen barikuan onartutako proposamenak.

Herritik alde egin barik izurtzarrak herrian bizitzeko hautua egitera bultzatzea helburu duten alokairurako eta jaio-berrientzako diru-laguntzez gainera, beste hainbat proiektu garatzeko asmoa agertzen du aurrekontuak; herriko ordenamendua berrikusteko prozesuagaz jarraitzeko 162.000 euro, herriko altzariteria hobetzeko 30.000, eta autobus geltokiarren proiekturako 6.000 euro jasotzen ditu, esaterako.

Aurrez Ogasun Batzordean eztabaidatutako aurrekontu pro-



Alokairua bultzatzeko 10.000 euroko diru-atala aurreikusi du aurrekontuetan.

posamenaren alde bozkatu arren, euren desadostasuna agertu zuten hainbat puntutan jeltzaleek: "bizi dugun krisi egoeran, udaleko goikarguen soldaten atalean murrizketarik ez aurreikustea ez da koherentea", salatu zuen Zarrabeitiak.

Aurtengo udal kontuak gidatu dituen baino %8 handiagoa den aurrekontua onartu dute

Gobernu taldeak bestalde, "herrian kokatuta dauden enpresek dagozkien zergak ordaindu ditzaten" neurriak hartu dituztela eta horri esker 2011n udalak 20.000 euroko sarrerak eskuratu-ko dituela azpimarratu zuen. ■ I.E.

ATXONDO

16 familia aurkeztu dira Arrazolako etxeen zozketara

Urtarrilean egingo den zozketarako behin-behineko zerrenda osatuta dago; Arrazolako apartamentu sozialetarako Atxondoko hamasei familiek eman dute izena.

Atxondoko udaletxean bertan edo www.atxondo.net webgunean dago zerrenda ikusgai. Behin-behinekoa da, eskaria egin duten batzuek zuzenketa batzuk egin beharko dituztelako. Zuzenketa horiek egiteko, hilaren 17ra arteko epea izango dute.

Gabonak aurretik jakinaraziko dute noiz izango den apartamentuen zozketa, baina Atxondoko alkate David Cobo sek aurreratu du urtarilaren erdialdera egiteko asmoa daukatela. Apartamentuen beharrak otsaila amaieran amaituko direla aurreikusi dute udal arduradunek. ■ A.U.

XIV. Nekazal Azoka jendetsua, euriari aurre eginez Apatan



Joan den domekan Apatako frontoia bisitari ugari gaz bete zen XIV. Nekazal Azoka zela-eta. Euriagatik, kalean barik frontoian egin dute aurtun azoka. Guztira, 34 postu egon ziren eskualdeko eta inguru-eko ortuari, produktu natural, sendabelar eta artisau lanak erakutsi eta saltzen. Ikusi, erosi eta dastatzeko aukera izan zuten gerturatutakoek; talo postua eta Lumagorriren pin-txo-aren postua jendez bete ziren eguerdi aldera.

MAÑARIA

Kirikiñoren kantaldiak, urte berezia biribiltzeko

Abenduaren 18an Larrabetzun eta 27an Astrabuduan eskainiko dituzte urte berezia amaitu orduko Kirikiño abesbatzako lagunek emanaldi bi. Urte berezia izan dute 2010 hau, abesbatza sortu zutela mende laurdena bete dutelako. Azken urteetako ohiturazko emanaldiez gainera, taldearen 25. urteurrena ospatzeko emanaldi bereziak eskaini dituzte herrian aurtun. Urte berriko lehenengo kantaldia bestalde, urtarilaren 5ean emango dute Derion.

Zita bi liburutegian

Abenduaren 23an, 18:30ean, liburutegian egingo dute Irakurketa Lehiaketaren sari banaketa. Horren aurretik, 17:30ean hasita, Peio Zabala ipuin-kontalaria- ren saioa izango da. ■ I.E.

GARAI

Postagaz sortu diren arazoak konpondu guran dabilta

Garaiko Udalak postagaz arazoak sortu direla informatu du. Arazo horien eraginak, batez ere, ohiko postaria falta denean jazo-zen direla argitu dute udal arduradunek. Alde batetik, helbide batzuk txarto jarri izan dira gutunetan –gaur egungo kale izendegiaz bat ez datozenak–, eta, bestetik, postontzietako etiketa batzuk egoera txarrean daude. Correosen bulegoetatik eman diote udalari abisua.

Modu horretan, "herria oso ondo ezagutzen" ez duen pertsona batentzat "gaitza izaten da gutunak ondo banatzea", udaleko oharrak dioenez. Hori dela-eta, helbideak zuzen idatzeko eta buzoietako etiketak aldatzea behar duenak udalera jotzeko eskatu dute oharrean. ■ M.O.



Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak


Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO



BERBAZ>

“Gure zaharren euskara aztertuta entziklopediak direla konturatu naiz”

Euskaldun zaharrek euskara batuarekiko dituzten konplexuez berba egin dugu Juan Manuel Etxebarriagaz



Juan Manuel Etxebarria •

- Filologo eta etnologoa
- Euskaltzaindiako kidea eta euskal filologiako irakaslea da

“Zenbat eta zaharragoak izan, erdal kutsu txikiagoa dute”

tan ere ez dator, eta egunen batean jaso beharko dugu. Arratian bertako berbategia kaleratu da duela gutxi, eta bertan sartu dugu.

Pertsona horien jarrera zelan aldatu daiteke?

Ez da erraza. Hitzaldi asko eman ditut, eta apurka-apurka badoaz kontzientziatzen, baina normalean jende zaharrak uste du euren euskarak ez duela balio. Pena da, ze gauza batzuk irakurtzen ditut eta konturatzen naiz badaudela herrian hori esateko beste modu batzuk. Zenbat eta zaharrago izan erdal kutsu txikiagoa daukate, eta horixe da balioa guretzako. Nik bazterrak arakatu ditudalako, baina 1968tik hona zenbat zahar hil diren euren berbakera ezagutzea aprobetxatu barik!

Ahozko euskararen gainean hainbat ikerketa egiten dira.

Geroago eta sentibilizazio gehiago dago, bai. Nik Koldo Mitxelenagaz doktorego tesia egin nuen, Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa buruz. Beste batzuk ere badabilta herrietako azterketak egiten. Bediako ikasle batek tesina egin du Bediako azken pastorearen lexikoa aztertuz. Bermeo eta Ondarruko lexikoak ere aztertu ditut. Igorren, liburu baten aurkezpena bertako 88 urteko artzain baten bideoagaz amaitu genuen, eta han batutakoek esaten genuen: “Horiek dira gure maisuak”. ■ A.U./J.G.

Durangoko Astarloa Delkartek Juan Manuel Etxebarria euskaltzaina gonbidatu zuen Durangora Euskararen Egunean. Euskaldun zaharren konplexuez jardun zuen Deustuko Unibertsitateko irakasleak.

Euskaldun zaharren konplexuen gainean egin duzu berba...

Aspaldiko kontua da. Euskara estandarra behar zen irakaskuntzan sartzeko eta euskarari oinarri batua emateko. Kontuan hartu behar da, aspalditik eta euskara batua sortu zenetik, gure herrian hiru belaunaldi bizi izan gara, aitita-amamak, erdikoak eta umeak. Gehien bat alfabetatze kontua irakaskuntzara eta leku ofizialetara joan da, baina gure belaunaldi zaharrak etxean jarraitu du bizitzen. Estandarizazio honek eten bat sortu du gure zaharren eta gazteen artean. Gauza bat alfabetatzea da eta beste bat hizkuntza jakitea. Hizkuntza gure zaharrek ondo dakite. Nire amak 91 urte ditu eta euskaraz bizi izan da bizitza guztian. Ez daki ‘h-a’

non jarri behar den edo analisi sintaktiko bat egiten, baina hizkuntza bai.

Pertsona horiek euskaraz ez dakitela uste dezakete?

Nire seme-alabak txikiak zirenean konturatzen nintzen amamatxoak ume txikiekin joaten zirela autobus geltokira eta umeen hutsak egiten zituz-

bili euskara batu hori aberas-teko, nahiz eta gure zaharrak konplexuz bete? Nire doktoretesia eta etnografia lanak egiteko, Barandiaranegaz, iturri handienak nire aita eta ama izan dira. Eta gero herrikoak, ingurukoak. Gorbea inguruan nabil pertsona zaharrek hartu-emanen eta benetako entziklopediak dira.

go egunean unibertsitatean zehargaldera eta erlatiboa azaltzen ibili nintzen. Esaten nien, nik azentuz bereizten dudala esaldi nagusia eta mendeakoa. Nire amak hori zer den ez daki, baina. Gure herriak halako gauzak ditu. Jende hau ezin dugu bazterrean eta isilean eduki. Altxor horretatik hartu egin behar da.

Zure inguruan sarri ikusi duzu pertsona nagusien konplexu hori?

Askotan. Lehengo egunean oinez joan nintzen, zapatu goizean, eta bidean hirukote bat zihoan aurretik. Bediako zen bat, eta “errekari” berba esan zuen. Berba horren inguruan galdetu eta ez zuen errepikatu gura izan, txarto zegoelakoan. Amagaz berba egin nuen, eta “errekari”-k errekararen inguruak esan gura ei du. Hiztegie-

“Doktore-tesia eta etnografiako lanak egiteko iturri handienak nire ama eta aita izan dira”

tela. Euren umea ikastolara, eskolara edo unibertsitatara zihoala eta eurek baino euskara gehiago zekiela uste zuten. Konplexuak hartu eta euren euskarak ez zuela balio eta euskara berria ikasi behar zelakoan zeuden. Euskal Filologia Gotzon Garatek Deustun sortu zuenean ikasle nobilela, gure ikerketa guztiak ikusi ahala etxeko euskara oso aberatsa zela konturatu nintzen. Hain aberatsa bada, zergatik ez era-

Aberastasun hori zertan datza?

Gure herriko hiztunei prestigioa ematea aberatsa da. Entonazioa, azentua, gauzak esateko modua inportantea da. Bizitzeko modua. Hizkuntza bizitzaren ispilua da, eta gure zaharrak euskaraz bizi izan dira euren munduan eta hori da guretzako aberasgarri. Orain mundu berrirako gauza berriak sortu edo egokitu behar ditugu, baina aurrekoari prestigioa kendu barik. Lehen-

“Normalean jende zaharrak uste du euren euskarak ez duela balio”



BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN

LAUDIO ABADIÑO

**KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI**

AUKERATU EZAZU ORDAINITZEKO MODUA

ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA

www.bautistamuebles.com

Santa Kurutz ind. 1 zk. LAUDIO (A-68aren 3. irteera) • Urbitarte ind. 4. partzela, 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)

BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Zorixonak gaztie!

Berotasun epel batek batu nau, udazken gorriko haize hotzek nire baitan gotorrazazi nautenean. Hodei arreek bestela ere nekez ikus nitzakeen izarrak ikutu dituzte, neguaren atariko mukizapi ugariaren artean, kostata zabaltzen ditudan begi bustien aurrean. Baina oroitzena geroko ametsen hazi izan daitezke, oraingo egunerokotasunaz, emeki, baina beti, ureztatzen baditugu.

Pasa dira honezkero hamaika urte lurretako herriak etorkizunari ate bat zabaltu zionetik, bidean, urrats bat gehiago pausatu zuenetik, eta orduko atari hartatik pasatuz ez dira gutxi izan bide hori burutzen jarraitu dutenak. Hamaika urte eta gero, autogestioaren oihartzunak ozen egiten du burrunba gure herriko kaleetan, herriarren bihotzetan.

Gogoan ditut Abadetxe barneko "kortan" gure ahots urratuek zapuztutako euskal kantazaharrak, edo gure gorputz zurrunez saiatutako dantzak, nahiz eta zenbait bietan ere trebeago ibili. Ez dira gutxi izan bertso "gure barik" orduak, sabaitik zintzilik pasatako orduak, edo barraren bi aldeetako latsa galduak. Ez dago Abadetxe bezalako ezer, denbora, utopiaren mugetaraino eten eta gazteriaren ametsak gauzatzen saiatzeko.

Zoriak, ordea, itzulipurdi ugari ematen ditu, herri baten eguneroko lanaren bizkar, eta lanbro honek goibeldu du gaur goizeko eguratsa. Mina eta sufrimendua pairarazi dizkigute errealitate bat kolorez janzten saiatzeagatik, biharko egunaren eraikuntzan lan egiteagatik, gurea dena eman diezaguten eskatzeagatik. Gure aldarriak egunez egun, entzungor erantzun dituzte, gazte izatea bera zigortzeraino.

Nola ahaztu, hezurretaren hotza gainditu ezinik egindako asanblada gaztez hordiak.

San Juan suaren inguruan egindako antzerkiak, musika emandak, bertso ekitaldiak, mendi ibilaldiak, parodiak, ... gero eta mahai-inguru handiagoetan egindako gazte bazkariak, lau hormen artean babesterik izan ez arren gauzatutako amets txiki handiak, ...

Eta gomuten segidak gaurko egunera ekarri nau tupustean. Herrian eraikitzen ez diren hormek deserrian harrapatu naute indarrez, eta urteurreneko hamaika kandelak itzaltzeko nire hatsa gutunazal itxi honetan bidaltzen dizuet zuen indarrei batu diezaiozuen.

Ilusio eta irrika handiz jaso ditut zuen lorpenen berriak, gogo biziz entzun herriko gertakizunen inguruko zuen iritziak, eta izugarri poztan nau, lanean, inoiz baino indar handiagoz jalgi zaretela ikusteak. Horregatik, horren momentu hunkigarri bezain gogorretan, Zorinak lurretako Gazte Asanbladari, gazteok egin duzuen lanari, gure herriaren etorkizunari!

Aurki, berriz elkartuko garelakoan agurtuko naiz gaurkoz, egunek ez dutelako alperrik jarraitzen bata bestearen atzetik, etorkizunak ez digulako ihes egingo atzamarren artetik, ez dagoelako preso har daitekeen ametsik, eta itzal denen gainetik errealitate bat bizi dezakegulako itxaropenez alai ...

11 urte ta gero...

Kondairak aurrera darrai!

Eñaut Aiertzaguena Brabo

Gutuna

Azaroa joan da, Gabonak gerturatzen dira eta guk beste behin ere euskal preso eta iheslari politikoen falta sumatuko dugu. Kaleetan argia eta eskapareak piztuko dira, baina gu oraindik ere gure senide eta lagunaren eskubideen defentsa ekarriko duen egunsentiaren zain gaude. Baina, bidea egiten ari gara, eta buru-belarri arituko gara helburua lortu arte: euskal preso eta iheslari politikoa etxean izan arte. Hori da gure iparra, hori da gure xedea.

Azaroan Etixeraten X. Batzar Nazionala burutu genuen. Urtearen balantzea egin, esperientziak konpartitu, parte-hartzea bultzatu eta aurrera begira jartzeko unea. Muturreko egoerekin berehala amaitu beharra dago. Hala eskatzen dugu, eta ez dugu guk bakarrik egiten: Gernikako Akordioak ere horrela dio. Sakabana-kearekin bukatu beharra dago; bizi osorako zigorraren aplikazioa bertan behera geratu behar da; gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten preso politikoei askatasuna berreskuratu behar dute, eta isolamendu eta bakartze egoerek eten egin behar dute.

Ezin ditugu ahaztu une honetan gose greban dauden euskal preso politikoa. Tarasconen bizi-baldintzen hobekuntzaren alde ari dira bertan dituzten euskal preso politikoa. Aurretik, azaroan bertan, Murcian eta Meauxen izan ziren gose grebak. Aurten, tamalez, horrelako egoerak pairatu behar izan dituzten hainbat euskal preso politikori ez zaio beste biderik geratu.

Egoera larria da. Oso larria. Iheslariak ere errealitate gordina pairatzerakondatuta daude. Honekin guztiarekin amaitzeko garaia heldu da. Herri honek etorkizun hobea merezi du. Fase berri bat zabaltu behar dugu, guztion artean. Elkarlanean. Ezinbestekoa da denon konpromisoa espetxe politika anker honekin amaitu eta eskubide guztiak Euskal Herri osoan errespetatuko diren aroa zabaltzeko.

Urratsa eman behar dugu. Iragan den azaroaren 13an, Euskal Herriko eta munduko hainbat norbanakok urratsa eman zuten urtarilaren 8an *Euskal presoak Euskal Herrira eskubide guztiak, egin dezagun urratsa* manifestazio nazionala deituz. Etixerat elkar-tea bertan izango da. Deialdiak gure atxikimendu eta babes osoa du. Urratsa emateko garaia da. Senide eta lagunok ezin dugu bakarrik egon euskal preso politikoen eskubideen defentsan. Euskal jendarte osoak babestu behar ditu gure senide eta lagun presoaren eskubideak. Horretara goaz, horretan ari gara: etxeratu arte. Etxean nahi ditugulako.

Gogoraraztekoa da Azoka iraun duen egunetan, egunero eguerdiko 12:00etan enkarteladak burutu ditugula, errepresaliatuei dagozkien eskubideak aldarrikatuz. Abenduaren 7an, berriz, arrasaldeko 17:30ean manifestapena egin genuen eskubide hauek aldarrikatuz.

Mila esker, eta segi dezagun lanean errepresaliatu guztiak etxean izan arte.

Durangaldeko errepresaliatuen senideak

Durangon kalean!

Eguerdiko orduetan banindoa bizkor-bizkor etxerantz, bazkaltzeko ordua zelako, eta hara non ikusten dudana gizon eza- gun bat aurrez zetorrela kontrako bidean. Agur esanda, nire bidean jarraitzeko asmoz, non hurbiltzen zaidan esanez:

- ¿Esto se va a arreglar?
- Sí, hombre. Ya se está trabajando en ello.
- ¿Pero Batasuna ya dará el brazo a torcer?
- ¡No! El brazo a torcer no. Se adecuará a los tiempos y a la situación, al igual que los demás.
- Te he dicho eso porque ya tengo 80 años.
- Yo 66.
- Tu eres joven. Puedes ser mi hijo.
- Gracias por lo de joven. Ya se arreglará.
- Que así sea.

Jarraitu nuen neure bidea, eta irribarrea sortu zitzaidan pentsatuz zelako bitxia den batzuen bakebidearen kontzeptua.

Elkarbizitzarako, elkarriketarako eta adostutako oinarri sendo batzuk onartzeko beti prest, baina makurrarazi gura gaituenen aurrean "brazo a torcer" emateko ez!

Jose Mari Bilbao - Durango

Sei hankako mahaia

Carmen Sampedro
EA

Gabonak dira!

Gabonak heltzeaz daude. Beste urteetan moduan kaleak eta etxeak argiekin apaintzen ditugu. Dendak opariz eta jostailuz betetzen dira eta gure bihotzak ilusioz, oroimenez eta, batzuetan, tristuraz.

Garai hau bake eta esperantzarako denbora da; gerrak, gosea eta injustiziak amaitzea denok eskatzen dugu. Urte berri honekin denok ditugu gure bizitza hobetzeko proiektu berriak.

Dendak opariz eta jostailuz betetzen dira eta gure bihotzak ilusioz, oroimenez eta, batzuetan, tristuraz

Biolentzia sufritu duten biktimei elkartasuna, gure laguntasuna eta hurbiltasuna erakutsi behar diegu

Hemen, gurean, biolentziaren amaierarekin eta egoerapolitiko berri batekin amesten dugu. Guztion ideiak errespetatuz. Norberak bere iritzia eta partaidetza defendatu behar du, beldurak alboan utzita. Biolentzia sufritu duten biktimei elkartasuna, gure laguntasuna eta hurbiltasuna erakutsi behar diegu.

Horrela ba, Gabonak amets egiteko sasoia dira. Nik, etorkizun horrekin amestu nahi dut, etorkizun baketsu eta aske batean, mehatxu gabekoa eta politikoki bakoitzen proiektuak defendatzeko etorkizuna.

Ea amets bat bakarrik ez den!

Nik etorkizun horrekin amestu nahi dut, etorkizun baketsu eta aske batekin



Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarte
2010eko abenduaren 10a - 9. urtea - 398 zk.

Laguntzailea:



Eta honako udal guztiak:



Zuzendaria:

Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:

Joseba Derteano.

Administrazioa:

Itziar Belar, Miren Abasolo.

Publizitatea:

Itziar Azula, Goretti Alonso eta

Amaia Huarte.

Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso

Esteban, Markel Onaindia, Amaia

Ugalde.

Maketazioa: Ainhoa Arizmendiarrtea.

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Argazkilariak: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

KULTURA[>]

MUSIKA > FOLKA

Durangeldean sortutako proiektua da folk musika, munduko hainbat herrialdeko erroetako musika egiten duen Ulannah hamalaukoarena. Orain urte eta erdi inguru (2009ko martxoan) bi lagun batzetik, pausoka-pausoka, hamalaukoa osatu arteko bidea egin du Ulannah taldeak, horrenbeste lagun eta beste hainbeste instrumentugaz.

Lagunen lagunak taldera batzetik, lau-bost zirenak hamalau musikari dira orain, eta mongolieraz “ilargi bete” esan gura duen ‘Ulannah’ izeneko taldean elkartuta dihardute: taldekide batek Mongoliara egindako bidaia-tik ekarritakoa da izena, eta hango doinuak ere jo zituzten Ulannahn hasieran. Euskal Herriko eta Balkanetako herri musikak jotzen dituzte orain, baina, gehien: doinu horiek eskainiko dituzte bihar, Iurretako Ibarretxe kultur etxean.

Orain urte eta erdi inguru batu ziren bi lagun, eta hamalaukoa osatu dute azkenean

Goi mailako ikasketak burutu dituztenak zein musika zaletasuna dutenak

Entseguetarako leku finkorik barik, taldekide baten baserrian edo Durangoko udalaren Landakoko lokaletan batzen dira, gus-tuko dutena “familia giroan” egitera: euren berbetan jaso dugunez, astero “musikagaz gozatzer”a.

Perkusioa, soka-instrumentuak, klarineta, trikitixa, alboka eta txirula jotzen dituzte, eta hamabost eta berrogei urte bitartekoak dira taldekideak.

Ulannah: herri musiken melodia eta doinuak sorkuntzarako oinarri

Abenduaren 11n, 18:00etan, Iurretako Musikaldia zikloaren egitarauan jasotako kontzertua eskainiko dute **Ulannah** taldeko hamalau musikariek. Durangeldekoak dira talde honi soka- eta haize-instrumentuak, perkusioa, eta ahotsa jartzen dituzten musikari gehienak: familia batu eta anitza eraiki dute urte eta erdian



Góiri Aldekoa-Otalora

Musikagaz hartu-eman profesionala dutenak dira taldekideetako batzuk —musika irakasleak, gehienak—, eta musika zaletasun dutenak beste batzuk; guztiak dira musikan ibilbide oparoa osatutakoak. Hain zuzen ere, “oso maila eta ibilbide ezberdineko jendea batzea talde berean” da, taldekideek diotenez, Ulannah musika taldearen bereizgarria eta berezitasuna. Goi mailako musika ikasketak dituztenak zein musi-

“Taldean deneriko ibilbidea egin duen jendea batzea da gure berezitasuna”

ka zaletasun dutenak helburu beragaz batzen dira Ulannahn: lagun arteko giroan musika jotzeko asmoagaz. Profesionaltasunaren eta zaletasunaren arteko eremu, hasierako “freskotasun hori galdu gura barik, baina ahal den neurrian hobetuz” jarduten dutela aitortu digute musikariek.

Areto, kale, taberna

Taña-Matienan, Ajangizen, Zizurkilen, Durangon eta Bermeon, kultur etxe eta aretoetan jo dute azken hileetan zuzenean Ulannah taldekoak, baina baita dendetan, tabernetan eta kalean ere.

Bazkari baten ostean, instrumentuak bertan dituztela aprobe-txatuta, tabernan lehenengo eta elizpean ondoren jo izan dute orain gutxi ere. Aurreikusi bako emanaldiak, erdi inprobisatuak, zein taberna girokoak, naturalak, dituzte Ulannahkoek gogoko.

Biharko Iurretakoaren ostean, gabonetako kanta emanaldia eskainiko dute abenduaren 26an, Durangoko San Frantzisko elizan, eta Durangon baita, baina Plateruenean, eskainiko dute urte berriko lehenengo emanaldia.

Herri musiken oinarrizko melodia eta doinuak interneten bilatu, eta taldean biolin-jotzaile

den Nagorek egiten du moldaketa eta konponketa: instrumentuaren eta musikari bakoitzaren arabera, beren-beregi joaten dira gero partitura musikarien behar eta gustuetara egokitzen.

“Nagorek sortzen du kanta guztien oinarria”, diosku Onintze taldekideak, “eta hori gutxi balitz, orain bere kanta sortzen ere hasi da”. Uda honetan Eskozian egin duen egonaldian azaldu digu Nagorek sortu zuela ukitu zeltiarrak daukan *Loch Voil* izeneko kanta: “Voil lakuari eta mendiei begira etorri zitzaidan inspirazioa”.

Hamabost eta berrogei urte bitarteko musikariek osatzen dute taldea

Ulannahko gainerako hamahiru kideek ere oso gustuko dute azken kanta hori, eta Iurretako Kultur Etxeko biharko emanaldian eskainiko dutela aurreratu digute asteon. Hori eta taldearen energia eta giro ona islatzen duten beste hainbat kanta joko dituzte biharko zuzenekoan. ■ I.E.

Jatorri eta ibilbide aniztasuna musika sortu eta jotzeko ere bada aberasgarri

Musika countrya, zeltiarrak eta klasikoa... jotzen hasi ziren lehenengo, orain Balkanetako eta Euskal Herriko doinuak jotzen dituzte gehiago. Erritmoa eta melodia oso berezia dutelako gustatzen ei zaizkie Balkanetako doinuak, eta gogoko dutelako jotzen ei dute azkenaldian herrialde hartako musika. Oso “zingaroak” omen dira Ulannahk jotzen dituen abestietako zenbait, dantzarako egokiak.

Zuzeneko emanaldietan aniztasuna eskaintzea bilatzen dutela azaldu digute: “Adidibez, kanta greziar bat oso mugitua egiten badugu, hurrengo jotzeko lasaitxoago bat hautatzen dugu, eta aldrebes”. Kontraste hori sortzea bilatzen dutela azpimarratu digute. Taldekide askoren orain arteko ibilbideek ere nahikoa kontraste sortu dezakete Ulannah taldean: musika klasikoa, folka eta jazzak jorratu izan

dituzte taldekide gehienek beste talde batzuetan. Urte askoan Durangoko Kriskitin dantza taldeko kide izandakoak ere badaude esaterako, taldean. Jatorri aniztasun horren aberastasuna ahal duten beste aprobe-txatzen dute euren musikan ere.

Lagun artean sorturiko 30etik gora kantatako zenbait gorde ahal izateko, etorkizunean diskoa grabatzeko asmoa badutela ere aurreratu digute.

DANTZA > EMANALDIA

Segoviako La Esteva taldea Durangon bihar, Kriskitin dantza taldeak gonbidatuta

Bihar, abenduaren 11n 20:00etan, Plateruena kafe antzokian izango da Durangon Folk jaialdiaren emanaldia

Gaztelako folklorea bildu, aztertu eta gordetzen lan egiten duen La Esteva taldeak gonbidatu du aurten Durangon Folk emanaldira Kriskitin dantza taldeak. Abenduaren 11n, 20:00etan, eskainiko dute dantza talde biek Plateruena kafe antzokian emanaldia.

Dantzari eta musikari
gaztelarren bisita bihar
Durangon Folk jaialdian

Kriskitin dantza talde durangarrak beste folklore eta kultura batzuk plazaratzeko helburuagaz Durangon Folk antolatu duena hamaikagarren edizioa da aurtengoa. Herrien arteko hartu-emana eta ezagutza bultzatzeko bidea izan da azken urteetan Durangon Folk: besteak beste, Galizia, Katalunia, Menorka, Murtzia, Zaragoza, Burgos edo Malaga lako lekuetako folklore taldeen

bisita jaso dute Durangon. Orain hamabi urte, Galeusca Folk izenagaz antolatu zuen Kriskitinek jaialdi hau lehenengoz: Galizia eta Kataluniako dantzariak etorri ziren lehenengo edizio hartan bisitan.

Dantzariekin batera, dultzaina eta danborra jotzen duten musikariek osatzen dute 1987an sortutako La Esteva taldea; belau-naldiz belaualdi, gaztelako herrialde hartako dantza gordetzeko lana burutu duena.

Orain urte batzuk Kriskitineko dantzariak Segoviara egin zuten bidaiaren itzulerako norazkoan, Durangora datoz segoviarrak euren dantzak erakustera oraingoan. Bihar, 20:00etan, Plateruenean da zita. ■ I.E.

Segoviako folklorea bildu
eta aztertzen 1987tik
diharduen taldea gonbidatu



GEURE DURANGALDEA



Jose Luis Lizundia
Euskaltzaina

Durango, 0 kilometroa

Egunotan Durango Euskal Herriaren 0 kilometroa izan da, hiru erkideko politikoena, hots, Euskal Autonomia Erkidegoarena, Nafarroako Foru Erkidegoarena eta Ipar Euskal Herriarena, Euskal Liburu eta Disko Azokaren kariatara. Igara da Azoka, baina aurrerantzean ere EAEko 0 kilometroa dela uste dut, gure agintariek eta gu geu konturatzan ez bagara ere, eta, noski, ezta etekin guztiak atera ere.

Landakogunean, ez bakarrik Liburu Azoka eta beste zenbait ekintza uri maila apalekoak, baizik eta urte guztian azoka gune hori okupatzeko modukoak etenik gabe antola beharko lirakeke. Gauza bera azpiegituraren elkartegian. Zenbat bulego dau-de eskualde kanpoko erakundeek alokatuak: nik dakidala bi: bata, Elhuyar euskalgintza arloko enpresa erreferentziala, Beterri eskualdeko Usurbil herrian egoitza nagusia duena, baina, Bizkaiko ordezkariak Durangon duena; eta bestea Euskaltzaindia. Gure hizkuntza akademiak, proiektu baterako ireki badu ere bere bulegoa, bertan, batzorde bat baino gehiago biltzen ditu, eta herrietako toponimia ikerketa-normalizazio lanetan dihardutenekin harreman bilgunetzat erabili du Euskaltzaindiaren Onomastika Zerbitzuak. Hain da puntu eroso, bide azpiegitura eta komunikabide aldetik! Aparkaleku merke eta ezin hurbilagoa du, gainera! Akademiak, EUDEL erakundearekin duen hitzarmenaren barnean, udaletako euskara teknikariek, bereziki toponimia eta seinaltika arloetarako, bialdiz antolatu dituen mintegi-jardunaldiak, bertara, EAEko udaletakoek gehiengo osatu badute ere, Nafarroa eta Iparraldetik ere etorri direlarik. Hirugarren bat, Durangon noiz eratu zain daude.

Euskal kulturgintza industriak non du kokagune nagusia? Gipuzkoako Beterri eskualdean: Andoain, Usurbil, Hernani. Duela pare bat urte iradokizun bat bidali genuen gure foru administrazioa, Bizkai-kora, alegia. Ez ote zen egokiako eta erdigunekoago izango, Bilbon, hiriburuan jarri beharrean, Durangon, hain zuzen Aldundiak kudeatzen duen elkartegian jartzea "Bizkai-ko Martin Ugalde Parkea"-ren parekoa? Gainera, Gerediagako autopistaren lotura berria martxan jartzen denean, Lea-Artibai eta Beasain-Durangaldeko komunikabide ardatza ere hemen izango dugu, alegia: EAEko 0 kilometroa.

BIZKAIKO BERTSOLARI TXAPELKETA > GERNIKA-LUMO

kronika

Durangaldea BECeko plazan elkartuko da



Herrenka igo zela, baina BECera txartela lortzen bazuen oholztatik saltoka bajatuko zela: agurrean horrelakoak esanez hasi zuen Beñat Ugartetxeak Gernika-Lumoko finalurrekoa. Mallabitarra izan zen joan zen domekan, Grnikan, lehenengoa. Azken finalurrekotik bera bakarrik sailkatu da finalerako, 513 puntugaz. Hala ere, oholta ez zuen saltoka utzi Ugartetxeak. Azken agurrean ederto borobildu zuen saioa: "...esan bezala ez naiz jaitziko gaur oholztatik saltoka/ BECera orduko lesionatzeko arrisku handia dago ta".

Gernikako Jai-Alai frontoian 900 pertsona inguru batu zen Bizkaiko Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoan. Busturialdean argiteriagaz arazoak izan zituzten, eta ordu erdi berandu hasi zen saioa.

Beñat Ugartetxea itxuraz lasai ibili zen Gernikan, bere ohiko umoreagaz kantatzen. 10eko txikiko ariketan striptease egitetik erretiratu

gura zuenaren azalean barre eragin zion publikoari, eta kartzelan ere seguru ibili zen.

Finalurrekoak amaituta, finalerako zortzikotea erabakita dago. Durangaldeko hiru bertsolari pasatu dira; Miren Amuriza, Eneko Abasolo "Abarkas" eta Beñat Ugartetxea. Beste bertsolariak Onintza Enbeita, Etxahun Lekue, Jone Uria, Arkaitz Estiballes eta Peio Ormazabal izan-

Amuriza, Abasolo eta
Ugartetxea hilaren 18ko
finalean izango dira

go dira. Berezia izango da finala, zortzikotik bostek lehenengoz kantatuko dutelako finalean. Pausoka, Herrenka edo saltoka, gure eskualdeko hiru bertsolariak ere lehenengoz igoko dira BECeko oholtzara. Zortzerik onena eurentzat.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

AB-10 22:00etan KONTZERTUA
SPLITT77 + SEIURTE. Sarrera: 6-8euro.

AB-11 20:00etan DANTZA IKUSKIZUNA
DURANGON FOLK. KRISKITIN. Sarrera doan.

AB-17 22:00etan KONTZERTUA
JINGO DE LUNCH + FLY SHIT + UK BILL. Sarrera: 10-12euro

AB-18 BAZKARIA + ERROMERIA
AIKO BAZKARI ERROMERIA

AB-25 22:00etan KONTZERTUA
GOVERNORS + SERMONDS. Sarrera: 5-8euro.

AB-30 22:00etan
URTEKO AZKEN BERTSO SAIOA. Sarrera: 8euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

www.plateruena.net

DEL MARAVILLOSO MUNDO DE LOS ANIMALES: LOS CORDEROS
Histrion Teatro (Granada)

Abenduak 11 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ
Liburu

11:34 601 07 76 Artekale, 14 Durango

DURANGOKO AZOKA> BALORAZIOA

Joan zen zapatuan hasi eta eguazten iluntzean Landa-ko Erakustazokako ateari itxiarte, bost egun iraun du Durangoko Liburu eta Disko Azokaren 45. edizioak. Eguaztenean, Azokaren bosgarren eta azken egunean, egin zuen Azoka antolatzen duen Gerediaga elkarteak aurtengo edizioaren balorazio ofiziala.

Balorazio horretan baikorren azpimarraturikoen artean, azken urteetako edizioetan martxan ipinitako hainbat ekimenen sendotasuna islatzen duten datuak nabarmendu ditu Gerediaga elkarteak: aurtun kokapen berria estreinatutako duen eta Berbarokudeatzen duen Haur Literatura Aretoa, esaterako, umeentzako 30etik goratailer, irakurradi eta ekimen burutu dituen. Ahotsenea gunean izan diren zuzeneko 76 emanal-

Baikorren, Ahotsenea
lako ekimenek izandako
harrera baloratu dute

Bisitari kopuru handiena
astelehenean jaso zutela
azaldu du Gerediaga

dietan, bestalde, “sarri, aretoa txiki geratu” dela ere aipatu du balorazio txostenean Gerediaga elkarteak, eta hirugarren edizioan ere “jakinmin handia” sortu duela Ahotseneak. Berrehun sortzaile inguruk eta entzule andanak hartu dute sortzaile-hartzaile harremanerako espazioan parte.

Bisitarien gorabeherak

Zapatuko lehenengo eguna, bisitari kopuruari dagokionez “lasaia” izan zela, baina domeka eta batez ere astelehena oso jendetsuak izan zirela azpimarratu du Gerediaga elkarte antolatzaileak: abenduaren 6a inoizko jendetsuena izan zela nabarmendu dute, eta Durangaldeko gainerako herrietan ere igarri zela bisitari kopuru hori.

Iaz baino %30 aurrekontu txikiagoagaz antolatu du Durangoko Liburu eta Disko Azoka Gerediaga aurtun, baina eguaztenean publiko egindako balorazioan diotenez, “euskal liburu eta diskogitzairen produkzioa erakusteko” helburua bete egin du aurtun ere.

“Krisiaren eraginez, eroslearen joera liburu eta disko kopuru txikiagoa erostea izan” dela ere azpimarratu du Gerediaga Elkarteak aurtengo Azokaren balorazioan: “erostekotan”, zehaztu du Gerediaga, “nobedadea gurago izan dute gehienek”. ■ I.E.

Azokako azkeneko edizioetako berrikuntzen balioa frogatu da

Eguaztenean egin zuen Durangoko 45. Liburu eta Disko Azokaren balorazioa Gerediaga



Txelu Anjoitia. Gerediaga

PINTURA> ERAKUSKETA

Ekialdeko kaligrafia eta espresionismo abstraktua Lorenzoren lan grafikoan

Urte amaierara arte Durangoko Arte eta Historia museoan ikusgai daude koadroak



Claudio Lorenzo margolari eta artista grafikoaren lana da abenduan Durangoko Arte eta Historia museoan betetzen duena. Abenduaren 31ra artekoa da Museoko lehenengo solairuan ipini duten erakusketa bisitatze aukera.

Artista grafiko legez jarduten duenean, hainbat dira margogintza, litografia eta grabatua lantzen dituen Lorenzoren sorkuntzatant eragiten duten influentziak: batetik, Durangoko Museoko era-

Espresionismo
abstraktuaren erakusle
dira koadroetariko batzuk

Xilografia, grabatua,
urtinta edo akuaforte
tekniken erakusgarri

kusketako hainbat koadrotan antzematen denez, ekialdeko kaligrafiaren eragina dauka Lorenzoren lanak, ekialdeko hizkien formak ageri dira margoetako askotan. Koadro batzuetako paisaia abstratuagoetan, baina, pintura informalak edo espresionismo abstraktuak ere badute lekuri: itsasoko enbataren irudia jasotzen du, esaterako, koadro batek.

Bestetik, egileak berak erakusketaren eskuorrian esaten duenez, marrazketa geometriko irakasle lanetan jardundako urteetako eragina ere nabaria da Durangoko Museoan ikusgai dauden lanean: finean, ekialdeko kaligrafiaren formak, espresionismo abstraktua eta marrazketa geometrikoa uztartzetik sorturikoa da Lorenzoren lana.

Xilografia eta grabatua dira erakusketa honetan bildutako koadro gehienak osatzeko egileak baliatu dituen teknikak. ■ I.E.



Olentzerori ipuina

OINARRIAK:

- 6-14 urte bitarteko umei zuzendua.
- Abenduaren 13tik 25era eman ahal izango da izena, Marimar mertzerian eta Tilin-Talanen.
- Irabazleen izenak urtarrilaren 6an jakinaraziko dira.
- Sariak:
 - 1- 6tik 10 urtera
 - 2- 10etik 14 urtera



elorriko merkatarien elkarteak

DANBAKA >

Danbakaren laugarrena: nor baino nor bereziago, eta ikuslearendako denetariko doinuak



SCAM

Scam talde aretxabaletarrari egokitu zitzaion gaua ixtea. Hasieratik lehen ilaretara jendea erakarri zuen talde bakarra izan zen, jende askotxo etorri zen eurak ikustera, Aretxabaleta, Arrasate zein Soraluzetik, besteak beste. Taldearen hasierako urteetako punk-rocketik haratago, metal eta hardcore doinuak nagusitu ziren Aretxabaletako laukotearen ordu erdian. Musikalki heldu egin dira baina baita agertokian egoteko gaitasun aldetik ere. Hirugarren aldia da Danbakan parte hartu dutena, eta igarri zen. Agertokian lasai, bizi eta konfiantzaz josirik. Gazteak dira baina eskarmentu handikoak aldi berean; eroso sentitu ziren agertoki gainean. Eragozpen bakarra: abestien arteko atsedenaldiak luzeegiak izan ziren, akaso.



SEAFOID

Seafoird izan zen gaueko hirugarrena. Irlandako jatorri izendapena duen folka izan zen emanaldia- ren ardatza. Baina ez ziren izan folk doinuak entzun ziren bakarrak, ez horixe. Rock eta pop doinuek ere pisu handia izan zuten eibartarren ordu erdian. Abeslariak –Irlandan jaiotakoa– eta haren gitarra akustiko zein elektrikoak gidatu zuten saioa, hori bai, goi mailako musikarien ezinbesteko laguntzaz. Izan ere, denetariko instrumentuekin igo ziren: teklatu, gitarrak, baxu, akordeoi eta bandolinak –haren zorroztasunak aipamen berezia merezi du– doinu berriak eskaini zizkiguten. Garagardoz bustitako kantak, noski, ez ziren falta izan: The Pogues edo The Dubliners taldeak gogora ekarri zizkiguten kantaren batean. Errepertorioari dagokionez, ez da oharkabea pasatzen Thin Lizzy taldearen *Whiskey in the jar* abestiaren bertsioa. Bertsio duina, bai horixe.



XARMA

Seafoird baino lehen Xarma izan zen agertokian, eta bai, izena bat dator izaerarekin. Xarmak xarma berezia duela erakutsi zuen. Hasiera ona, gogotsu irten ziren. Lehen bi kantetan, baina, arazo teknikoak izan zituzten bi gitarra joleek; aurrera egin zuten, hala ere. Behin hasita geratzea debekatuta dago. Baina emanaldiaren erdialdean bateriako kaxa apurtu zitzaizen eta orduan ezin izan zuten aurrera egin. Zorte txarrari naturaltasunez egin zioten aurre: "Gaur ez da nire eguna, hori argi dago" adierazi zuen bigarren gitarra joleak. Rock gogorra ekarri zuten bizkaitarrek, eta agertokia bete zuten. Taldea, bateratua: gitarra joleek jarri zuten ahotsa eta baxu joleak eta bateriaren joleak jarri zuten musikalki pisua. Oso sentsazio onak utzi zituen laukoteak. Arazo teknikoak alde batera utzita, pozik egoteko moduko emanaldia, zalantza barik.



DEABRUTU

Xarmaren aurretik, Deabrutu izan zen protagonista: Iñaki Urizarrek aurkeztu zuen Danbakan bere proiektu pertsonala. Agertokian bakarrik eta batera lagun, doinu gogorrak eskaini zizkiguten aramioarrak: death eta metal doinuak, hain zuzen. Ez da batera ohikoa agertokian batera jotzailea bakarrik ikustea, normalean bigarren plano batean geratzen den musikaria interes foku bakar izatea. Proposamen ausarta denik ezin ukatu. Hori bai, ikuslearekin feedback gutxi.

BABESLE NAGUSIA



LAGUNTZAILEA



HEDABIDE LAGUNTZAILEA



ANTOLATZAILEA



www.danbaka.com

GEHIGARRIA[>]





39,99€



32,99€



EROSKI

349,00€

zurekin ABADIÑO



GABON EGUN
HAUETAN

%10^a

Jostailuetan

afede

JOSTAILUDENDAK

Oparirik onena gabon hauetan seme-alabek,
ilobek, lagunen umeeek zein zeuk jolasteko!



Ederki lotzen duten zurezko piezak
alfabetoa ikasteko modu dibertigarria eta
sormenezkoa



Soinu eta mugimendudun pelutxea, bi
ipuin kontatzen ditu irakurtzen duzun bitartean

Mahai joko klasikoa



Superpoly euskaraz

19,99 €

IRABAZI JOLAS BAT JOLASTUZ

galdera erraz bati erantzunez: **anboto.org**

Jostailu hauek, beste askoren artean, AFEDEn eskuragai miniprezioan

Zornotza: Gudari etorbidea, 49 • Eibar: San Juan kalea, 13

Durango: SIMPLY supermerkatuan

**Denda
berria**

Durango: Fray Juan de Zumarraga, 15

DURANGO TXARTELA, gero eta abantaila gehiago



Abenduan zehar, zure erosketak **DURANGO TXARTELA**rekin ordainduta **Landako izotz-pistaz** gozatzeko oparituko ditugun 300 sarreretako bat lortu dezakezu



Erosketa tiketeen emango da sarien berri

URTAINXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari, 9 • Tel.: 94 681 50 17



UNDARRI BIKE
Bizikleten salmenta eta konponketa.

Lehen markak: Commençal, Orbea,... eta beste batzuk.

arropa • oinetakoak • gurpilak • ordezeko piezak osagarriak • janaria • ...

Bidebarrieta, 5 - behea
48215 IURRETA
undarribike@undarribike.com

94 681 78 08
www.undarribike.com

%40ra arteko deskontua

BIZIKLETA ETA ARROPATAN

gabon koriontsuak!

HAUR BIZIKLETA UGARI AUKERANI

Ezingo deusazazu gogoari eutsi!

kontsultatu baldintzak dendan.

2x1 telepizza®

Probatu gure pizza gainerrea asteko egun guztietan. (lokalean)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86

alberdi estankoa

Zubibitarte, 7
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 40 33



HITZ
Liburudenda

Artekale, 14 • DURANGO
Tel.: 94 681 07 76

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - 48200 Durango
94 620 18 93 - Faxe: 94 681 64 03

eme
elorrriko merkatarien elkarte

Zorionak eta urte berri on!

ESKERRIK ASKO

ELORRION

EROSTEAGATIK



*Abenduko erosketen artean bi
pertsonentzako afaria zotz egingo dugu*

Montebideo etorb. 3 • Durango (Bizkaia)



MOSCANEVA



FRED PERRY



KIROLAK >

“Ez nuen uste futbolean hain luzaro ibiltzeko aukera izango nuenik”



Aurtengo denboraldian lehenengo hiru partiduak ez beste guztiak jokatu ditu Jaio abadiñarrak Numantzia taldean.

Egoitz Jaio (Abadiño, 30 urte) Numantzia taldean jokatzen dabil, futboleko bigarren mailan. Soriako taldeagaz lehenengo mailan jokatutakoa ere bada. Aurretik Galizia eta Kataluniako taldeetan ibili zen.

Aurten amaitzen duzu kontratua Numantziagaz. Negoziazioak hasita daude?

Oraindik ez. Partidu asko gertatzen da aurretik, eta oraindik zelaian bakarrik daukagu burua. Denboraldia amaitzen doan heinean ikusiko dugu. Bost urte daramatzat Sorian, eta hainbeste urtean talde berean mantentzea ez da erraza.

Zer gertatuko den ez jakiteak halako kezka eragiten dizu?

Ekainean kontratua amaitu eta maiatzean oraindik ezer ez badakit kontuari bueltak ematen hasiko naiz, normala den moduan; baina aurretik ez hainbeste. Orain urte bi ekainean jakinarazi zidaten kontratua berrituko zidatela. Kontuan hartu behar da, sarritan, kontratuak ez direla urte askorako izaten.

« Kulturalaren
ibilerrak jarraitzen
ditut Axier Intxaurraga
taldekide izan nuelako
Algecirasen »

Aurten asko jokatzen ari zara?

Lehenengo partidu biak ez nituen jokatu, baina gainerako guztiak bai. Beraz, pozik nago.

Taldea ez dabil hain ondo.

Lehenengo bost partiduetatik bakarra irabazi genuen. Harrezkero hobetu dugu, baina ez gura beste. Etxetik kanpora ezin dugu irabazi. Azken hamarkadan igoera bat baino gehiago lortu du taldeak, baina ez da ahaztu behar bigarren mailako aurrekonturik apalenetakoa dugula. Beraz, garrantzitsuen mailari eusteko beste puntu batzea da. Hortik aurrera ahal dugun goren amaitzen ahaleginduko gara.

Numantziagaz lehenengo mailan jokatu zenuen. Zelan gogoratzten duzu denboraldi hura?

Ez nuen askorik jokatu, baina esperientzia polita izan zen denontzat. Zoritxarrez, bizitzan legez, futbolean ere atzo egin dakoa arin ahazten da, eta maila galdu genuenean berriro bigarren mailara bideratu genituen ahaleginak eta pentsamenduak.

2002an Racing de Ferrol-ek fitxatu zintuen. Hura izan zenuen Euskal Herritik kanpora-

ko lehenengo esperientzia. Erabaki gaitza izan zen?

Lehenengo denboraldia ez zen hain erraza izan: 21 urte, toki eta bizimodu berria... Baina behin lagunak egin eta konfiantza hartuta, oso gustura egon nintzen. Beste lau-bost euskaldun zeuden taldean, eta horrek ere lagundu zidan.

Atzera begiratu eta zure orain arteko ibilbidea errebasatzen, zer ikusten duzu?

Ez nuen uste hainbeste urtean futboleko jokatzeak aukerarik izango nuenik. Dena dela, horretan ez dut larregi pentsatzen. Futboleko egunean-egunean joan beharra dago, sekula ez dakizulako bihar zer gertatu den.

Aurrera begirata, zer ikusten duzu?

Oraindik urte batzuetan jarraitzeko esperantza badaukat, beti ere kontziente izanda apurka

amaitzen doala nire futbolari ibilbidea. Gustatzen zaidana egiten dut, eta geratzen zaizkidan urteetan gozatzea itxaroten dut.

Durangaldeko futbol taldeen ibilak jarraitzen dituzu?

Hemen ez daukat horretarako modu handirik, baina saiatzen naiz. Esaterako, Durangoko Kulturalak zer egin duen begiratzen dut, Algecirasen jokatu nuenean —urte erdiz Racing de Ferrolek joanda— Axier Intxaurraga Kulturalako entrenatzailea ere hantxe jokatzen zebilelako. Bere azkeneko urteak ziren futbol jokalarik, eta nik 24 bat urte izango nituen orduan.

Aurten denboraldi ona osatzen dabil Kulturala.

Benetan ere. Orainsu denboraldiko bigarren partidua galdu dute, baina orain arte ederto dabilta. Ea errendimendu horri luzaro eusten dioten. ■ J.D.



Azken fasea ziurtatuta, Iruñea bisitatuko du Elorriok

Euskal ligako lehenengo fasea amaituko du asteburuan Elorrio rugby taldeak Iruñean. Elorriarrak bigarren daude sailkapenean, eta dagoeneko euskal ligako azken fasea jokatzeak sailkatuta daude. Iruñeako rugby taldea da liderra, 26 puntugaz; elorriarrek 24 dauzkate.

Orain arte ez dute porrotik jaso: bost irabazi eta bakarra berdindu du. Azken garaipena Arrasate-Durangoren kontrako derbian lortu zuten (12-32).

Bestalde, ohorezko B mailan, Durango Ilarduyak Barcelona Universitario bisitatuko du; partidu inportantea da jaitziera fasea ekiditeko. ■ J.D.

Bizkaiko trinkete txapelketa Tornosolon

Buruz buruzko Bizkaiko Trinkete Txapelketari dagozkion hainbat partidu jokatuko dituzte asteburu honetan. Gaur, 18:00etan, nagusien lehenengo mailan Ander Martin mallabitarrek, Rober Uriarte abadiñarrak eta Mikel Gonzalez berriztarrek Gandiaga, Ugarte eta Gordonen kontra jokatuko dute, hurrenez hurren.

Zapatuan nagusien bigarren mailako partiduak jokatuko dira, 10:30ean; horietako bi Abadiñoko Atxarte eskolako pilotarien artekoak: Aspuru-Badiola eta Arabio-Agirre. Bihar, 17:00etan, gazteen mailan Atxarte eskolako Ricok Olaburuko Errasti izango du arerio. ■ J.D.

Elezkano eta Arratibel garaile Cafés Baquén

Apatan jokatutako XXV. Cafés Baqué Pilota Txapelketako finalean, Danel Elezkano zaratamoa jantzi zuen txapela kadete mailan, Iñaki Artola 18-9 menderatuta. Seina eta zortzina berdindu zuten lan erdietara heldu aurretik. Handik aurrera, Artolak pilota argi batzuk galdu zituen nekearen ondorioz, eta Elezkano ia zuzenean joan zen 18ra.

Gazteetan, Ibaia Arratibelek 22-19 irabazi zion Victor Estebani. Biek ere ez zuten euren mailarik eman. Arratibel kolpez gehiago da, eta horrek eman zion txapela. ■ J.D.

Elorrioko bikotea Olazar txapelketako final atarian

Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarrek Yoldi eta Linzoain nafarrak izango dituzte aurrean hilaren 16an Olazar txapelketako finalerdian



Igor Azpirik (irudietan) eta Landaburuk 22-21 irabazita lortu zuten sailkapena. Kepa Aginako

Igor Azpiri eta Jon Landaburu elorriarrek Olazar pilota txapelketako finalerdia jokatu dute, datorren egunean, 21:30etik aurrera, Zaldibarko pilotalekuan. Aurrez aurre Yoldi eta Linzoain nafarrak izango dituzte, elorriarren gogo eta helburu berekin. Pronostikoak zabalik daude.

Final laurdenetan, Azpirik eta Landaburuk ederto sufriruta kanporatu zituzten Garralda nafarra eta Untoria errioxarra (22-21). Partidu gorabeheratsua izan zen. Garralda eta Untoria aurretik joan ziren partidu erdira arte. Hortik aurrera, elorriarrek aurrera hartu zuten, baina alde erabakiorrik lortu barik; azkenean, emozioa nagusi.

Yoldi eta Linzoinek ofizioari esker lortu zuten sailkatzea. Gutxi oparitu eta serio jokatu.

Hilaren 16ko jaialdian lau t'erdiko bigarren finalista ere ezagutuko dugu. Ansotegi nafarra edo Ipar Euskal Herriko Etxebarri. Bien ibilbidea ikusita, Ansotegi da faborito. Etxebarri

Hilaren 16an Ansotegi eta Etxebarriak ere finalerako txartela dute jokoan lau t'erdian

jotzaileagoa da, baina nafarrak ofizio handiagoa du. Lau t'erdiko lehenengo finalista atzo erabaki zen, Ezkurdia eta Elezkano II.aren arteko lehian (emaitzak www.anboto.org-n ikusgai).

Hilaren 23an, Larrañaga eta Zabaletak atzoko irabazleen kontra jokatu dute (Mendizabal-lurreta / Arrese-Kastillo). Zaldibarrera doazen pilotazaleek beste behin izango dute Zabaleteren pilotakada latzeekin gozatzeko aukera. Garraldak eta Jaunarenak (azken hori Aspegaz debutatzekoa da) etorri ezin dutelako jokatu dute Larrañagak eta Zabaletak. Finalak, abenduaren 31n jokatu dituzte, 16:30etik aurrera. ■ J.D.

Egoitz Murgoitio, inoizko ondoen Munduko Kopan

Igorreko lasterketan, lehenengo hamarren artean sartzeko zorian egon zen abadiñarra

Joan zen asteburuan, Igorrek Munduko Ziklo-kros Txapelketako laugarren proba hartu zuen, eta hantxe lehiatu zen Egoitz Murgoitio. Bere esanetan, "denboraldiko lasterketarik garrantzitsuenena" zen, eta inoizko

"Urteko lasterketarik garrantzitsuenena" zen Murgoitioarentzat

emaitzarik onena lortu zuen abadiñarrak, 11. amaituta. Azken itzulian Heule suitzarrak kendu zion hamargarren postua: "Lasterketaren azken txanpa hobetu behar dut", onartu zuen Hirumet taldeko txirrindulariak. Lasterketa Niels Albertek irabazi zuen.

Dani Ruizek kopako lehenengo puntuak batu zituen, 31. amaituta. Amaitzeko, Xabier Garciak Munduko Kopako lasterketaren aurretik antolatutako openean parte hartu eta irabaztea lortu zuen. ■ J.D.

Mikel Bilbao

• Radio Euskadiko kazetaria



Pailazokeriatik ez du ezer

Adituarentxokoa

Lau t'erdiko lehenengo lehiak 50eko hamarkadaren amaieran jokatu zituzten; lau bat pilotarik parte hartzen zuten esperimentuak izan ziren. 80ko hamarkadan indartsuago itzuli zen, aldi haiek Julian Retege magoak irabazi zituelarik. Pilotari nafarrak beti gogoratu du ez zirela gutxi izan kaiolako txapelketa pailazokeriatzat jo zutenak. Denborak erakutsi du pailazokeriatik ez duela ezer. Are gehiago: binakoaren ikusmina gaintzen du eta, esango nuke, kantxa osoko buruz burukoaren pareko ere badela.

Zergatik eragiten du halako ikusmina? Azken urteetan, kantxa osoan oso partidu desorekatuak ikusi ditugu. Kaiolan, orde, indarrak berdindu egiten dira, trebetasuna ere behar delako. Partiduak erritmo izugarrian jokatzeko dituzte, eta ez dago atsedenik, ez pilotarientzako eta ez zaleentzako.

Domekan diruak Irujoren alde irtengo du. Aurrelari nafarra oraindik partidurik galdu ez duen bakarra da, eta ligaxkan Barriola menderatu zuen. Ematen du Irujo zaildu egin dela, ez ditu sasoi batean adina opari egiten. Txapelketa honetan, markagailua kontra izan duenetan, egoera aztertzen eta erabaki zuzenak hartzen asmatu du.

Hala ere, Irujok ez luke gehiegi fidatu behar. Buruz buruko lehiak saketik hasten dira, eta horretan Barriolaren ahala beldurtzekoa da. Gainera, aurrean ez dago Titinen eta Oinatzen kontrako finalen aurreko egunetan bezain presionaturik. Orduan urduri eta tentsio gehiegigaz kantxaratu zen. Segururik Irujok irabaziko du, baina ez dut Barriolaren alde euro batzuk apustu egitea baztertzen.

Errendimenduagaz pozik Cespa-Euskadi taldea

Australian Munduko Txapelketan egon dira

Australian, Melbourneko belodromoan, Munduko Txapelketan lehiatu da Cespa-Euskadi taldea. Ez dute dominarik lortu, baina gustura bueltatu dira eskainitako errendimenduagaz. Iban Leanizbarrutia elorriarra eta Martzel Elorriaga berriztarra Omniumeko finalean lehiatu

ziren —zuzenean sailkatuta—, eta 40 kilometroak osatzea lortu zuten. Lasterketa ikaragarri azkarra izan zen.

Hodei Mazkarian altsasuarra, sorbaldako lesioa gaintu berri, ezin izan zuen Keirin-eko finalerdietarako sailkatu, baina ondo lehiatu zen. ■ J.D.



Domekan itzuli ziren Australiatik Euskal Herrira.

OSASUN GIDA



SPA ETA OSASUN ZENTRUA



Vilegy

Rehabilitazioa • Fisioterapia • Reflexoterapia • Testaje integral eta naturala • Tratamentu eta prebentzioa
Drenaje linfatikoa • Enbulturak • Masajeak •
Estetika • Nutrizioa eta dietetika • Laser depilazioa
Kirol psikologia • Tabakoaren kontrako tratamendua

Untzillatx, 11 behea • 48200 DURANGO
tf. 94 681 03 58

FISIOTERAPIA

Zainduz


**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



**JON
GERRIKAETXEBARRIA
PENÁ**

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



**B. UNAMUNZAGA
E. ETXEBARRIA**

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



**FISIOTERAPIA
ETA ERREHABILITAZIOA**

*Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...*

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria.
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



**KIROMASAJEA
DIGITOPUNTURA**

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



**HIRU
FISIOTERAPIA**

astelenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

Abadiñoako tiralariak lehen porrota, laukoan

Goma gaineko lauko txapelketan, aurten arte, Abadiño sokatira taldeak parte hartu izan duen txapelketa guztietan irabazi du. Errekorra 320 kilokoan apurtu da oraintsu, hirugarren amaitu zuelako Ibarra eta Berriozarren atzetik: "Itxaroten genuen zer edo zer da", aitortu du Edu Mendizbaal entrenatzaileak. Izan ere, besteak beste, hainbat tiralari taldea utzi dute, eta ohiko biek barik, aurten talde bakarragaz dabil lehiatzen Abadiño.

"Espero genuen",
dio Edu Mendizabal
entrenatzaileak

Bihar eta etzi 300eko txapelketako sailkapen faseak dituzte Txantrean eta Anoetan, hurrenez hurren. Finala hurrengo asteburuan jokatu dute Berriozarren.

Bestalde, joan zen asteburuan Herebeheretako sokatira taldea etorri zen Durangaldera, eta Abadiñoako taldeagaz lau entrenamendu egin zituzten. Durangoko pilotalekuan erakustaldia ere eskaini zuten Abadiño, Sokarri, Ibarra eta Herbeheretako talde bik. ■ J.D.

Igor Urienek 3 Formulagaz probak egin ditu asteon

Emilio Bellota taldeagaz aritu zen eguaztenean Jaramako zirkuituan



Igor Urien 3 Formulagaz eguaztenean Jaramako zirkuituan egindako probetan.

Igor Urien 15 urteko abadiñoarrak 3 Formularako probak egin zituen eguaztenean Jaramako zirkuituan, Emilio Bellota taldeagaz. Datorren denboraldian Urien 3 Formularen aritzea babesleztaren baitan dago: "Babesleak lortuz gero parte hartuko dugu, bestela, beste alternatiba batzuk bilatu beharko ditugu", dio Pedro Urien aitak. Probekin gustura

geratu dira, nahiz eta europar kontrolatu behar izan zuen 230 zaldia eta 450 kiloko formula. Aurten Formula Libreko Txapelketa irabaztea lortu du, eta horrek hila- ren 17an Chesten probak egiteko eskubidea ere eman dio.

Urienek aurten erabili dituen bi autoak bertatik bertara ikusteko aukera egongo da Abadiñoako Eroskiko sarreran,

abenduaren 15etik aurrera hila- betez: Formula BMWa eta prototipoen CM speed car GTR 1.000. Horrez gainera, Errege eta Gabon egun bezperan, cart zirkuitua atonduko dute Eroski inguruan eta gaztetxoek txapelketako cartak probatzeko aukera izango dute. Informazio orriak supermerkatuan eta Errota kultur etxean ipiniko dituzte. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Berriz - Sondika

Zapatuan, 17:30etan,

Berrizburun

LEHENENGO ERREGIONALA

Iurretako - Ermua

Zapatuan, 17:00etan,

Larrakozelain

BIGARREN ERREGIONALA

Abadiño - Mungia B

Zapatuan, 15:30etan, Astolan

HIRUGARREN ERREGIONALA

Extremeko - Derio B

Zapatuan, 16:00etan, Tabiran

ARETO FUTBOLA

EUSKAL LIGA

Kurutziaga Ikastola -

Lagun Onak

Zapatuan, 17:45etan,

Landako kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA

Abadiño Lagun -

Elorrioko B

Zapatuan, 17:00etan,

Berrizburun

BIGARREN ERREGIONALA

Sapuberri - Egartsuak

Zapatuan, 16:00etan,

Landako kiroldegian

Dantxari - Gu Lagunak

Zapatuan, 16:30etan,

Landabide Heziketa Institutuan

SASKIBALOA

LEHEN ERREGIONAL

BEREZIA

Tabirako -

Centro Salmantino

Zapatuan, 16:30etan,


Landako kiroldegian

LEHEN ERREGIONALA

Anbotopeko - Enkarki

Zapatuan, 18:00etan,

Tabiran



ABENDUAREN 24a Ostirala

17:00etan TXOKOLATADA, Bartolome Ertzilla
Musika Eskolan. Euria eginez gero Landako gunean

**18:00etan KALEJIRA OLENTZERO
ETA MARI DOMINGIREKIN**. Irteera: B. Ertzilla

Musika Eskola, Astarloa, Andra Mari, Zumalakarregi,
Ermodo, Madalena plaza, Landako etorb., Landako gunea.
Euria eginez gero ez da desfilerik egingo.
Parte-hartzaileek Landako gunean egingo dute
ekitaldia (hasiera 18:30etan).

**19:00etan OLENTZERO ETA MARI DOMINGIRI
HARRERA**, Landako gunean.

ZORIONAK!!



DURANGO
Udala - Ayuntamiento

duran...go!
goazen!

GABONAK 2010 2011

AMALURRA[>]

URBIO LA



Mancomunidad de la Merindad de Durango
Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa



Trafikoaren kutsadurak gora egin du, eta industriarenak, berriz, behera

Aire korronteak direla-eta Durangon, lurretan eta Traña-Matienan dago kutsadurarik gehien

Durangoko airearen gaineko emaitzak jakiterakoan sortu zen eskualde mailan ikerketa egiteko ardura

Durangaldeko airearen kalitatea “onargarria” dela ondorioztatu du Azterlan ikerketa zentroaren azterketak

Arnasten dugun airearen kalitatea zelakoa den ikertzeko bederatzi hilabeteko azterketa egin du Azterlan ikerketa zentroak. Durangaldean hainbat puntutan neurtu dute airearen kalitatea, eta eskualdeko airearen kalitatea “onargarria” dela ondorioztatu dute Azterlaneko ikerlariak.

Airean topatutako partikulak aztertzeaz gainera, kutsadura zer eremutatik datorren ere aztertu du Azterlanek.

Kutsaduraren % 38 industriek sortutakoa da, trafikoak % 32 sortzen du, eta kaleetako obrek % 15; txikiagoak dira etxeko kutsadura (% 8) eta naturak sortzen dituen gasak (% 7). Arinago egindako beste ikerketa batzuk kontuan hartuta, industriak airearen kalitatean duen eragina txikitu egin dela azaldu du Azterlanek, eta trafikoaren kutsadura, berriz, hazi egin dela.

koaren kutsadura, berriz, hazi egin dela.

Aireak ez dauka muga administratiborik, eta batean eta bestean sortutako kutsadura aire korronteen bitartez zabaltzen da eskualdean. Korronte horiek direla-eta kutsadura gehien eskualdeko erdigunean pilatzen da; Durangon, lurretan eta Traña-Matienan. Durangoko airearen gaineko emaitzak jakiterakoan sortu zen eskualde mailan ikerketa egiteko ardura.

Industrian gutxitu egin da

Aurreko ikerketa batzuekin konparatuta, industriak sortzen duen kutsadura gutxitu egin dela azaldu du Azterlanek. Gutxitze horrek hainbat arrazoi izan ditzake. Araudi berriak tartean daude, eta egoera ekonomikoa dela-eta aktibitate pro-

duktiboa txikitu izana arrazoieta-ko bat izan daitekeela azaldu dute txostenean. Alde horretatik, Azterlanek ohartarazi du ekonomia berreskuratzeak kalte egin diezaiokeela ingurugiroari, eta kontuz jokatu behar dela.

Industriaren eraginez eskualdean zabaldutako metal hautsa, batez ere, burdina eta zinka da. Beruna, kadmioa, nikel eta artsenikoa ere aurkitu dituzte, eta metal kontzentrazioak ez du urte baterako araututako muga gainditzen.

Datuetatik ekintzetara

Durangaldeko Amankomunazgoak bultzatutako azterketa izan da Azterlanek egin duena. Orain, behin diagnosia aurkeztu eta gero, helburua iturri kutsakorrek ingurugiroan daukaten eragina murriztea da. ■ A.U.

EDERTASUN GIDA

Estetika Zentruak



Parafarmazia Dietetika

Amaia

- Drenatze linfatikoa
- Dieta pertsonalizatuak
- Elikagai naturalak
- Dermokosmetika
- Haurrentzako elikagaiak

Antso Estegiz Zumardia • 1zk. behea • Durango • 94 681 81 96

Cristina Agirre
• apaindegia •

CA

- GORPUTZ ETA AURPEGIKO TRATAMENDUAK •
- ARGIZARI BIDEZKO DEPILAZIOA -beroa eta epela- •
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA •
- DEPILAZIO MEDIKU-LASERRA •
- MAKILAJEA •
- ESKUZKO DRENAJE LINFATIKOA (VODDER) •

Fray Juan de Zumarraga, 9-18 • Tel.: 94 681 42 05 • Durango

Ana Camarero
• estetika zentroa •

Gabonetan, oparitu nahi duzunak adarrosen-protokolatuak eta zerbitzuak.

- Aurpegi garbiketa
- Argizari epelez depilatzea
- Depilazio elektrikoa
- Gorputz tratamenduak
- Solariuma
- Mikropigmentazioa
- Laser fotodepilazio mediko estetikoak

Golenkale 16-1. esk • Tel.: 94 681 73 80 • Durango



- Ana Camarero
- Apaindegia dauka Durangon

Oparia aukeran

Ileapaindegia

NUKLEO
ileapaindegia

myspace.com/pelukerianukleo

Nizeto Urkizu, 14 behea • Elorrio • Tel.: 94 658 29 96

iunik
ileapaindegia

astehenerdik asteazkenera 10:00-21:00

osteguna eta ostirala 09:00-22:00

larunbata 09:00-17:00

Antso estegiz, 1 • Durango • Tel.: 94 621 64 91

Egunotan ingurukoei opariak egitekotan dabilzanentzako, proposamen praktiko batez datorkigu Ana Camarero. Edertasuna eta ongizatea oparitzea da asmoa. Aurpegiko larruazala garbitzeko tratamenduak, hidratazio tratamenduak, manikura, pedikura, masajeak... askotariko zerbitzuak aukeratu daitezke.

Apaindegiko tratamenduak oparitzeko aukera eskaintzen duzue.

Txartelak prest ditugu eskaintzen ditugun tratamendu eta zerbitzu guztiak oparitu ahal izateko. Txartela neurria egin daiteke, bakoitzak gura duenaren eta aurrekontuaren zenbatekoaren arabera. Askok eskatzen dizkigute, geroago eta gehiago.

Jendeak zer zerbitzu oparitzen du gehien?

Ayuslomi masajea, esate baterako, izan daiteke aukeretako bat. Musika lasaia jarri eta olio beroagaz gorputz guztian masajea ematen dugu. Oso atsegina da, laztanak jasotzea lakoa. Filosofia ayurvedikoan oinarrituta dago eta, galdetegia eginda, 'torsa' edo izaeraren arabera olio bat edo beste erabiltzen dugu.

Harri beroekin egindako masajeak ere harrera ona izaten du?

Bai. Basaltozko harriak izan ohi dira, harri bolkanikoak. Harriak ur berotan sartu eta gero masajea egiten dugu gorputz osoan: buruan, eskuetan, bizkarrezurrean, hanketan... Hainbat tamainatako 60 harri erabiltzen ditugu, masajea ematen gabiltzan gorputz atalaren arabera.

anboto.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

Saldu / Erosi
Errentan eman / Errentan hartu
Lan eskariak / Lan eskaintzak
Galdu / Aurkitu
Eman / Hartu

Eguazteneko 19:00ak arte
jasotako iragarkiak bariku
horretako alean
argitaratuko ditugu.
Beranduago jasotakoak
hurrengo alean.

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Erregistratu zaitez, www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia edo bidali mezua hurrengo helbide elektronikora: anboto@anboto.org.
Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23
Paperean, ordainduta: Iragarki laburretatik bereztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Iragarkiak sare sozialetan zuzenean argitaratzeko eta erabiltzaileak SMS abisuak jasotzeko aukera ematen du.

Higiezinak ETXEBIZITZAK

SALDU

Abadiño. Sukaldea, egongela, komuna, 3 logela, trastelekua eta ganbara. Eguzkitsua da eta 3 balkoi ditu. Igogailua jartzekotan dira. Berogailua eta leiho berriak dauzka. Etxe guztiak kanpora ematen du. Tel.: 655 712 105

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 3 logela handi, 2 komun, sukaldea, egongela handi bat jangelarekin eta balkoi handia. Ganbara. Berriztatua eta berogailuarekin. Bizitzera sartzeko moduan. Negoziagarria. Tel.: 667 882 338.

Abadiño. Muntzaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Kanpoalderuntz ematen du. Garajea eta trastelekua. Oso polita. Deitu eta ikusi! Tel.: 615 007 216

Abadiño. Muntsaratzen. 2 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, igogailua, trastelekua eta garajea. 4garren solairua, ia berria. 217.000 euro. Tel.: 688 686 587

Berriz. 3 logela, 2 komun, sukalde berriztua, 2 balkoi, egongela handia, ganbara handia eta garaje itxia. Oso eguzkitsua. Guztiz berriztua eta egoera ezin hobean. Tel: 647 777 392

Durango. 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea - jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular eta baita terraza komunitarioak ere. Altxariz betea eta guztiz jantzia. Garaje eta igerilekuarekin. Telefonoa: 655 704 684

Durango. Alde Zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altxariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Berehala bizitzera joateko. 215.000 euro. 607 715 353

Durango. Atiko zoragarria Alde Zaharrean. Duela urte eta erdi erabat berriztatua.

Erabat jantzia. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Kapritxosoa. Etorri ikustera! Telefonoa: 659 425 890

Durango. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, berogailua eta despentsa. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Jantzitza eta erreformatua. 189.319 euro. Telefonoa: 699 409 959

Durango. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 e. 696 255 083. 17:00etatik aurrera deitu.

Durango. 94m2, herriko gudarien plazan. 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, eguzkitsua eta bista ederrekin. Prezioa: 343.000. Tel.: 615 76 08 01.

Durango. Andra Maria kalea. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du. Pisu altua, 30 m2-ko terraza-rekin. Tel.: 696 255 083 (17:00etatik aurrera)

Durango. Sasikoa kalea. 3 logela, komuna, egongela- jangela, sukaldea eta ganbara. Prezio onean. Garajea ere bai, nahi bada. 679 38 23 69

Elorrio. Pisu ederra. Berri-tua, 124 m2, gas naturaleko berogailua, sukalde hornitua, egongela, 5 logela, 2 komun, jangela, 2 balkoi eta garaje itxia. Derrigorrezkoa ikustea. Prezioa: 264.500 euro. Telefonoa:685 734 825

Elorrio. Berrio-Otxoa kalean berriztuta dagoen jauregian,70 m2-ko pisu polita, 2 logela, sukalde eta egongela, komuna, trastelekua eta garaje itxia. Dena 303.000; trasteleku eta garaje barik 283.000. Nagore. Tel.: 653 748 001

Garai. Oar-Erdikoa baserria, 6. San Migel auzoan. Udale-txetik 150 metrora. Hegoal-dera begira. 300 m2-ko so-

lairua. 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritzarako edo landa-etxerako oso egokia. Erre-formatzeko. Proiektua aurkeztuta, etxebizitza 2 egiteko aukera. 639 833 489

Iurreta. Askondo kalean. 210.000 euro. 78 m2, 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Garajea aukeran. Tel.:94 681 19 48.

Mallabia. Baserria eta 20.000 metro karratuko lur zatia salgai. Kokapen ona eta prezio egokia. 12:00-14:00 eta 18:00-22:00 artean deitu. 655 702 647

Mañaria. 90 m2, hiru logela, bi komun, egongela- jangela eta sukalde guztiz jantzia. Altxariz hornitua. Miradorea eta bista ikusgarriak. Trastelekua. Igogailua. Prezioa: 220.000 euro. Tel.: 646 675 051

ERRENTAN EMAN

Berriz. 90 m2-ko eta 3 logela pisua errentan. Igogailua, terraza eta garajea. Tel.: 94 682 00 41

Berriz. 3 logela, 90 m2, igogailua eta garajea. Errenta: 600 euro. Tel.: 94 682 00 41

Durango. 3 logela. Oso eguzkitsua eta bista ederrak. 4. Pisu, igogailu eta berogailuagaz (gas naturala). Telefonoa: 638 125 838

Durango. Gela bat daukat libre, etxea asteleneetik ostiralera partekatzeko asmoarekin. 658 72 45 90. Rober.

Durango. Pisu konpartituko nuke beste pertsona batzuekin. Tel.: 679 620 447

Zaldibar. Logela bat ematen dut errentan. Telefonoa: 655 739 792

ERRENTAN HARTU

Durango. Pisu konpartituko nuke beste pertsona batzuekin. Tel.: 666 202 273

Durango. Alkiltatzeko etxe

bila nabil Durangon eta inguruetan. 637 144 162. Momo

PISUA KONPARTITU

PISU BILA

Durango. Durangon edo inguruetan logela errentan hartuko lukeen 26 urteko mutila naiz. Tel.: 649 89 00 43 (17:00etatik aurrera).

PISUKIDE BILA

Durango. Pisu konpartituko pertsona bat behar da. Telefonoa: 658724510

LOKALAK ERRENTAN
Abadiño. Lokal ekipatua, altxariekin alokagai Matiena eta Durango bitarteko errepidean,120 m2. Deitu 619 790 053 telefonora.

Atxondo. 40 m2-ko lokala alokagai. Komuna ipinita dauka. Tel.: 686 137 123

GARAJE/ TRASTEROAK

SALDU

Abadiño. Garajea salgai Matienan. Zeus-en lokalean. Deitu eta informatu! Telefonoa: 94 681 70 67

Durango. Garajea (marrak) alokatzen dut landako 7 kalean (madalena autobus geltokia dagoen tokian). Tel.: 625 921 057

Durango. Garaje partzela bat salgai Alluitz kalean, 3. 22.000 euro. Telefonoa: 636 33 82 46. Amaia

Elorrio. Garajea salgai Berrio-Otxoa kalean. Telefono zenbakia: 658 759 264

ERRENTAN EMAN

Durango. Lonja-trasteroa alokatzen da, Errotaritxuena auzoan. Tel.: 615 750 039

Teknologia

INFORMATIKA

GAINERAKOAK

Ordenagailuak konpon-

tzenditut. Etxez etxe. Hardware eta software lanak. Konfiguratu, birusak kendu, periferikoak ipini, etab. Arin eta merke! Tel.: 650 172 285

Lana/negozioak

LAN ESKARIAK

ETXEKO LANAK

